

**Jon Urraza  
aktorea**

Bakarrizketa  
lehiaketan irabazle  
KULTURA, 33

**Aloñak lider jarraitzen  
du etxearen 2-1 irabazita**

UDAk eta Mondrak berdindu egin  
dute asteberuko jardunaldietan  
KIROLA, 12-13

**Joseba  
Egibar**

Aretxabaletan  
izan zen barikuan  
GEUREAN, 6



# ASTELEHENKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko martxoaren 20a • 2. urtea • 94. zenbakia • 0,90 euro

## Ibarreko nagusiendako egoitza berria Aretxabaletan

*Onati, Arrasate,  
Eskoriatza,  
Gatzaga eta  
Aretxabaletako  
nagusi  
dependentei  
egingo die zerbitzu*

Ibarreko bost herritako nagusi dependenteei zerbitzu emango dien egoitza berria egiteko lehen urratsak egin ditu Aretxabaletako Udalak. Arritxu Oliden alkateak aurreratu duenez, Aldundiako ordezkariekin hainbat aldiz egon eta gero egoki ikusi dute Aretxabaletan egitea egoitza hori. Dena dela, adierazi du hastapenetan baino ez daudela. **4**

**ARETXABALETAKO EGOITZA**  
Egungoa txiki geratu da eta eraikinaren ezaugarriengatik ezin ditu Jaurlaritzaren baldintzak bete

**DEPENDENTE GEHIAGO**  
Aldundiak 2010erako egindako aurreikuspenetan, leku beharrean geundeke gurean; dagoeneko bagaude

**ALDUNDIAREN ADOSTU**  
Aretxabaletako Udalak herrian duen beharra eta Aldundiak ibarrean ikusi duena batu dira proiektuan

**LAUSITTA INGURUAN**  
Zona hori iruditu zaie egokia egoitza eraikitzeko; lursailok errekalifikatzea onartu egin du udalbatzak

### IBARREKO ZIKLISMOA

ASTELEHENKO GOIENKARIAk Debagoieneko txirrindularitzaren gaineko informazio osatua dakar gaur. Gurean dauden hiru txirrindularitza elkarteen –Dorletako Ama, Lokatza eta Aloña Mendi– nondik norakoak eta, behe mailetako ziklisten gainezko informazio guztia aurkituko duzu zortzi orrialdean barrena. **18-25**



### LAURENT GALINIER NAGUSITU ZEN OÑATIKO DUATLOIAN

Atleta frantziarra izan zen azkarrena Oñatiko helmugan, 1:42:54 denborarekin. Laurent Galinier Frantziako duatlo txapelkundeardea hasieratik egon zen lasterketaren buruan Hector Llanos gasteiztarrarekin batera. Emakumeen artean, Ainhoa Murua zarauztarra nagusitu zen. Ibarreko 40 atletak jardun zuten proban. **17**

Gaur  
arratsaldean  
egingo diogu  
ongietoria  
udaberriari **8**

Presoen alde  
jardungo duen  
talde irekia  
egin nahi dute  
Bergaran **5**

Gero eta  
gehiago dira  
eskolan  
hasten diren  
helduak

Debagoienean Helduen Heziketa Iraunkorrerako (EPA) sei zentro ditugu eta ia 500 lagunek jarraitzen dituzte bertako eskolak. Eskoriatzan, gainera, behin betiko loka-la inauguratu berri dute.

Azken urteotan asko aldatu da ikasleen profila: emakumezkoak dira oraindik ere gehiengoa hezkuntza etxe horietan. Bainaz azken urteotan, etorkinen kolektiboa asko handitu da. **2-3**

**SUPER  
AMARA** gonbidatzen zaituzte  
ERRIOXAKO UPATEGI ONENAK EZAGUTZERA

Zozketan  
parte hartu!

Bidaia,  
Bazkaria  
eta Bisita barne  
  
Informazio  
kutxan eskatu



BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

# GEUREAN

- Herriko gazte ugarik hartu zuten parte zapatuan Elgetako gaztetxearen 10. urteurrean | 7
- Zapatuan egin zioten ongi etorria Karmen Irizar Antzuolako preso ohiari | 7

**80 lagun  
inguru batu ziren  
zapatuan Aramaion  
III. Gazte Eguneo  
afarian | 4**

## HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA DEBAGOIENEAN

**HELDUEN ESKOLAK** | AZKEN HIRU URTEOTAN ASKO IGO DA IKASLE ETORKINEN KOPURUA

# Debagoienean ere behar berrietara egokitu dira

*Sei egoitza daude ibarrean eta hiruhileko honetan 452 ikaslek dihardute eskolak jasotzen*

Larraitz Zeberio

Gero eta ikasle gehiago dituzte eta eskaintzen dituzten irakasgaien zerrenda ere gero eta zabalagoa da. Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroez (EPA) ari gara. Eusko Jaurlaritzarenak dira, zentro publikoak hortaz, eta sei ditugu gurean. Bergarako zentroak Bergara, Antzuola, Oñati eta Soraluzeko egoitzak hartzen ditu bere baitan. Arrasatekoak, berriz, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak.

### 20 URTE MARTXAN

Duela 20 bat urte zabaldu ziren ibarreko bi zentro nagusiak: Bergara eta Arrasatekoak, hain zuzen. "Orduko eta gaur egungo beharrak oso ezberdinak dira", adierazi digute bi egoitzotako arduradunek. "Garai haietan hezkuntza orokorra eskaintzen genuen: matematika, historia, geografia... Orain, ordea, behar berrietara egokitu behar izan dugu, eta hizkuntzak, informatika, Internet, eta abar erakusten ditugu".

Matrikulazioak igozen joan ziren, baita egoitza berriak zabaltzen ere. "Orain guregana etortzen diren ikasle profil berrietara egokitu behar izan ditugu ikasgaiak", gaineratu digute ikasketa-buruek.

### HIRU IKASLE MOTA

Duela 20 urte ikasteko aukerarik izan ez zuten ikasleak hurbiltzen ziren eskola horietara. Gehienbat emakumezkoak.

Eta hogeitze urte geroago emakumezkoak dira oraindik ere gehiengoa eskola horietan, baina sortu dira kolektibo berriak ere.

"Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen ditugu, eskola amaitu ez duten gazteei zuzendu-



LARRAITZ ZEBERIO  
Egunero bi orduko eskolak jasotzen dituzte Bergarako ikasle hauek. Barikuan informatika ikasten aurkitu genituen.

takoak. Asko dira, aldi berean, unibertsitateko sarrera-proba eta goi-zikloko ikasketak egiteko pres-takuntza jaso nahi dutenak ere".

Baina azken hiru urteotan nabarmen igo den kolektiboa etorkinena izan da. "Hasieran denak, etorkin guztiak, talde berean sartzen genituen, baina laster kon-turatu ginen ezberdintasun handiak zeudela euren artean", azaldu digu Bergarako eskolako zuzendari Miren Gurutze Aranak. "Europako ekialdetik datozeneak eskolatuak dira, titulazioa duten pertsonak, eta laster ikas-ten dute. Hego Amerikatik datozeneak, ordea, hizkuntza ondo daki-te, baina ia alfabetatzeke daude.

Azkenik, Magreb-etik datozenak ditugu. Horiek ez dute hizkuntza ezagutzen, eta, gainera, alfabetatu-gabeak dira".

Besteak beste, informatika, Internet, euskara, atzerritarrendako gaztelania eta gidabai-menaren azterketa teorikoa lan-tzen dituzte Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroetan. "Ikas- le batzuk ikastera eta azterketa bat prestatzena etortzen dira. Beste batzuek, aldiz, eskola elkar-gune moduan hartzen dute. Eta aukera biak dira balizkoak".

### Ikasleen bilakaera

	98-99	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06
Alfabetatzea	111	113	125	194	114	250	200	198
Titulazioa	199	225	193	233	207	157	138	106
Etorkinak	1	5	10	6	14	22	76	88
Ez arautuak	0	0	0	34	22	60	50	60

### • HAUXE ESAN DIGUTE DEBAGOIENEKO IKASLEEK



AMY ETA ANN-KATHRIN |  
AEB-AK ETA ALEMANIA

Gaztelania ikasten dute bi gazte hauek Bergarako zentroan. "Gaztelania eskolak jasotzeko herrian aurkitu dugun aukera bakarra hauxa da".



JULI |  
BERGARA

Gustura etortzen da Juli ikastera. "Ez daukat uzteko inongo asmorik".



JUANI, MAIKA ETA MANOLI |  
BERGARA

Euskara ikasten dihardute. "Umeei etxeko lanetan lagundu ahal izateko ari gara eus-kara ikasten". Aurretik ibilitakoak dira HHIn ikasten, baita graduatua atera ere.



MIREN |  
BERGARA

Matematika, histo-ria, informatika... ikasten dihardu. "Gustura nabil".



ITZIAR, MARIA PILAR, MANOLI ETA LOLA |  
BERGARA

Ingelesa ikasten dihardute astean lau orduz. Hain-bat arrazoirengatik hasi ziren: bidaiatzeko, Interneteen nabigatzeko, familia dutelako atzerrian... "Adin batetik aurrera ikastea gogorra da, baina...".

HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA DEBAGOIENEAN

MIREN GURUTZE ARANA | BERGARAKO DELEGAZIOKO ZUZENDARIA

# "Urte gutxian asko aldatu da eskaintza gure eskoletan"

L.Z.

**Helduen heziketa zentroera hurbiltzen den ikasleen profila asko aldatu da azkenaldian. Horrek egoki-ze prozesuak eragin ditu.**

**Helduen heziketan aldaketa asko izan dira azken urteotan.**

Horrela da. Eskola horien helburua bere garaian oinarrizko hezkuntzajasotzerik izan ez zuten jasotzeko aukera ematea da. Egun, ordea, oinarrizko hezkuntza ez da soilik irakurtzen eta idazten jakitea. Hizkuntzak, informatika... Konturatu ginen beste zenbait alor lantzea ere beharrezko zela, eta behar horietarai egokitu behar izan dugu guk ere. **Dedikazio handia eskatzen diezue hemen ikasleei?**

Bi ikasle mota ditugu: alde batetik, titulazioren bat ateria nahi dutenak. Bigarren Hezkuntza, unibertsitateko sarbide-proba edo goi-zikloko proba gainditu nahi dutenak, hain zuzen ere. Horiek ganoraz ikasi behar izaten dute.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako edukiak ematen ditugu; oso oinarrizko edukiak, eta dedikazio handirik eskatzen ez dutenak. Ume txikiak dituzten amak etortzen dira eskola orduetan, hizkuntzak edo informatika ikastera.

**Etorkinak hirugarren ikasle profila litzateke?**

Bai, eta asko hazten ari da, gainera. Horiek beste behar batzuk dituzte: lehenik eta behin, hizkuntza ikastea; eta, hain zuzen ere, hori eskaintzen diegu.

**Lan gogorra da zuena?**

Azken urteotan irakasleen prestakuntzan ahalegin handia egin dugu eskaintza garai berrieta egokitzea. Baino ikasteko gogoz etortzen diren ikasleekin egingo dugu lan; hori oso atsegina da. **Adin batetik aurrera ikastea gogorra izango da.**

Argi dago gure ikasleek ez dutela gazteen modura ikasten.



ESKORIATZA | EGOITZA BERRIA INAUGURATU DUTE

## Lokal berriarekin zerbitzu zabalagoa eskainiko dute

*Intxaurtxueta auzoko egoitza berriari esker goiz eta arratsaldez emango dituzte eskolak*

L.Z.

Eskoriatzako Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak (HHI) behin betiko egoitza izango du aurrerantzean. Urte asko eman dituzte Eskoriatzako ikasleek behin-behineko egoitzetan. Azken urteotan, esaterako, kultura etxeko gela batean jaso dituzte eskolak. "Ikasle horiek merezimendu osoz lortu dute behin betiko egoitza", azaldu zuen egubakotzeo inaugurazio ekitaldian Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoak. "Urte asko daramate egoitza baten zain".

Intxaurtxueta auzoan dago lokal berria, 125 metro koadro ditu eta bi ikasgela, irakasle gela eta komuna ditu. Udalak 55.000 euroko inbertsioa egin du.

"Une honetan 30 bat ikasle ditugu", adierazi zuen ekitaldian HHIlko zuzendari Mila Igartzak. "Goizez bi talde ditugu eta 20 bat lagun etortzen dira. Arratsaldez, berriz, beste hamar bat ikaslek hartzen ditu eskolak".

Gabon ostean hasi ziren eskolak Intxaurtxuetako lokalean. "Lokal propioa izateak

goiz zein arratsaldez eskolak emateko aukera zabaldu digu", adierazi zuen Mila Igartzak. Aurrerantzean, horrenbestez, zerbitzu hobea eta zabalagoa eskaintzeko aukera izango du eskolak.

### 97 URTEKO IKASLEA

Egubakotzeo inaugurazio ekitaldian ikasleak izan ziren protagonistak, eta, batez ere, 97 urteko Rosalia. Eskolako ikaslerik nagusiena da eta lokal berria oso gustuko duela adierazi zuen. "Bere garaian ez nuen ikastetrik izan, eta 90 urterekin sartu nintzen ni eskolan. Eta onartzeak ez dit inongo lotsarik ematen". Rosaliari ez zaio meriturik falta, eta lore-sorta jaso zuen eskolako arduradunaren eskutik.

**Lokalak 125 metro koadro ditu, bi ikasgela, irakasle gela eta komuna**



Inaugurazioan ikasleak izan ziren protagonista, batez ere 97 urteko Rosalia.



ENCARNA, HERMINIA ETA ELENA | ESKORIATZA

71, 72 eta 78 urte dituzte. "Gaztetan ez genuen ikasteko aukerarik izan, eta orain gabiltza eskolan". Encarnak askoz hobeto irakurtzen du, Herminia ikastiketak egiten ikasi du eta Elenak sinatzen.



PILI | BERGARA

"Eskolan lagunak egin ditut. Oporrak hartzeara ez zait batere gustatzen".



FLORA ETA MARÍA | BERGARA

Florari kostoa egin zitzaien eskolan hastea. "Lotsa ematen zidan, baina etorri eta oso gustura nabil orain. Ortografian asko hobetu duela dio. María ere pozik dabil; matematika ariketak ditu hark gustuko".



ROSA, ROSALIA ETA LOLÍ | ESKORIATZA

74, 97 eta 65 urte dituzte. "Denbora luzea behar izaten dugu gauzak ikasteko, baina gure erritmora ikasi egiten ditugu. Bere garaian ez genuen ikasteko aukerarik izan, eta orain dihardugu".



ETXEBIZITZA | OÑATIKO UGARKALDEKO BABES OFIZIALEKO LEHEN ETXEBIZITZAK ZOZKATU ZITUZTEN EGUBAKOITZEAN

# Datorren urte amaierarako egongo dira prest egubakoitzean banatutako 75 etxebizitzak

*Ugarkaldeko etxeen lehen faseko etxebizitzak izan ziren egubakoitzean zozkatutakoak, eta datorren urtean banatuko dituzte sektore horretan geratzen diren 120 etxebizitzak*

Jon Berezibar

Guztira 560 oñatiar egon ziren euren zortearen zain pilotaleku, baina horietako 75ek barkerri izan zuten zoria euren alde. Arratsaldeko bostetan hasi ziren Ugarkalde inguruko babes ofizialeko lehen etxebizitzen zozketarekin. Urduritasuna erraz nabari zitekeen zurrumurru etengabeen, eta, azkenean, notarioaren aurrean banatu ziren etxebizitzak. Alkate eta udal ordezkariekin batera, han izan zen Ricardo Ortega, Lurraldeko Etxebizitza arduraduna, prozesua gerutik jarraitzen. Lurdes Idoiaga alkateak iragarri zuenez, datorren urteko azkenetarako egongo dira amaituta lanak.

Zozketa-ontzian lehenak sartzen gutxituendako egokitutako lau etxebizitzen bolak izan ziren. Lau gutxitu egon dira zerrendan; beraz, ukorik egon ezean guztiek hartuko dituzte giltzak. Gai-

nerako etxebizitzen zozketa jarraian egin zuten. Zerrendako partaide bakoitzari zenbaki bat eman eta zenbaki horiei egokitu zitzaien etxe bakoitza. Guztia bideoz grabatu zuen Udalak, ziurtagiri gisara.

## ETXE BABESTU GEHIAGO

“Herriko etxebizitza gabeziatik atera eta herritarrak bizitza ez hipotekatzen” lagunduko duela adierazi zuen Lurdes Idoiaga alkateak. Horren harira, datorren urteko lehen hiruhilabetean Ugarkalden bertan beste 80 etxebizitza zozkatuko dituzte eta geroago sektore horretako azken 40 etxebizitzak. Horrenbestez, eta herri osoa kontuan hartuta, bi urte eta erdian Ugarkaldeko ez gain babes ofizialeko beste 240 etxe banatuko dituzte; hala, guztira 480 izango dira. Hori litzateke epe laburrera Udalak eraiki eta banatuko dituen babes ofizialeko etxeen kopurua.



JOSETXO ARANTZABAL

Pilotaleku urduritasuna suma zitekeen zozketa-ontziak bueltaka zebiltzala.

Egubakoitzean banatu zirenei dagokienez, zortedunek zozketa amaitu bezain laster jaso ahal izan zitzuten egokitutako etxeen agiri eta planoak. Etxeak jaso-

tzeko aurkeztu beharreko dokumentazio guztia hamabost eguneko epean aurkeztu beharko dute zortedunek Lizaur Arkitektoa kalean dagoen bulegoan.

Udalak ohar bezala aditzera eman zuenez, zozketa egoterik ezin izan zutenei telefoonoz lehenbai-lehen jakinaraziko zaie etxebizitza egokitu zaiela.

## Presoen eskubideak bermatzeko talde irekia antolatzen dihardute

*“Ahalik eta espektro ideologiko zabalenera” iristeko taldea osatu nahi dute Bergaran*

M.B.

Herritar talde batek egindako deialdi irekiari jarraiki, 30 bat lagun batu ziren eguenean Bergarako Pol-Pol mendi elkarteen erakusketa aretoan. Euskal presoen egoeraren bueltan batu ziren guziak, eta asmo argiarekin: presook jasaten duten eskubideen urratzea salatzen eta haien bermatzeko bideak irekitzea. Horretarako, baina, “ahalik eta espektro ideologiko gehienetara” iritsi nahi dute, “sentsibilitate guztieta”. Azken batean, “ahalik eta talde handien eta irekienda osatu ahal izateko”.

Askotariko ideiak entzun ziren bazarrean, baina abiatu bera zuten guztiak: “Presoen egoeraren gainean badago gizartean kontzentzia, baina arrazoi askorengatik jendeak ez du ezer egiten: egoeraren politi-

zazioa, ezker abertzalearen gaia den ustea... Horrek jendea atzera botatzen du”. Hortaz, egoera hori gainditu eta sensibilizazioa aktibatzeko bideak aurkitu behar dituztela iritzi zuten. Baina nola egin mezua helarazteko eta sinesgarri izan dadin? Nola lortu jendea taldera hurbiltzea? Horixe izan zen batzarreko bigarren eztabaidea-gaia. Batetik, ahoz ahokoaren garrantzia azpimarratu zuten, eta, bestetik, ekin-tza moduak aldatzea (ohiko bil-kurak, manifestazioak...)

Hurrengo hitzordua hilaren 22rako jarri dute, 20:00etan, kultura etxeen.

**Presoen egoeraren gainean dagoen kontzentzia isila aktibatu nahi dute**

**Hurrengo hitzordua hilaren 22rako egin dute, 20:00etan, Bergarako kultura etxeen**



## Deustuko Unibertsitatea Arrasaten

### Etor zaitez gu ezagutzera

|ESTE-ESIDE. Titulazio Bikoitza:  
Empresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Lizentziatura eta Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (6 urte)

|ESTE. Empresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Lizentziatura (5 urte) + Espezialitateko Masterra

|Giza Zientzietako Lizentziatura: Komunikazioa. HUCO (4 urte)

|Giza Zientzietako Lizentziatura: Enpresa. HUEM (4 urte)

|Turismoko Diplomatura (3 urte)

|Gizarte Laneko Diplomatura (3 urte)

### Informazio saioa

Eguna: MARTXOAK 22, asteazkena  
Tokia: Monterron Kultura Etxea  
Zarugalde, 1  
ARRASATE / MONDRAGÓN

Ordua: 19:00etatik 20:00etara.

943 326 308 - 943 326 600  
e-mail: infoacad@ud-ss.deusto.es  
www.infodonostia.deusto.es

Mesedez baiezta!

Aretxabaletan egon zen Joseba Egibar GBBko lehendakaria egubakoitzean. Gaur egungo egoera politikoaz mintzatzera etorri zen. Besteak beste, esan zuen

EAJren grabitate-zentroa Euskal Herrian eta erabakitzeko eskubidean dagoela, eta erabakitzeko eskubidearen erabilera azkeneko ondorioetara eraman behar dela.

Aretxabaletako EAJk gonbidatuta etorri zen. Beste bi hitzaldi ere antolatu dituzte: Josu Jon Imazena apirilaren 7rako eta Xabier Artzalluzena maiatzaren 18rako.

**JOSEBA EGIBAR | GIPUZKO BURU BATZARREKO LEHENDAKARIA**

# “Imazen eta Raxoiren arteko bilera lehen hurbilketa gisa uler daiteke”

Monika Belastegi

**Su-etenik izango dugu Aberri Eguna baino lehen? Zuk esana da ETAK erabakita daukala su-etenak aldarrikatzea.**

Aberri Eguna heltzean dagoenean hitzetik hortzera entzuten dira su-etenaren zurrumurruak. Data hori erakargarria izaten da zenbait zurrumurru zabaltzeko. Zalantzak gabe, hainbat faktorek ohartarazten digute garai politiko berri baten atarian gaudela, eta giro horretan su-etenak berebiziko balio politikoa izango luke. Hori ukaezina da. ETAK ere giro horretaz jabetza espero dugu. Data ez dago zehazterik. Lehenago giro egokia sortu beharra dago. Argi dagoena zera da, bake prozesu baten eszenatokia ahalbideko ezinbestekoa dela giza eskubideen errespetua oinarri izatea, eta gure herrian, oraindik orain, giza eskubideen hainbat urraketa ikusten gabilta, bai ETAREN eta baita beste hainbat eragile politiko eta judizialen aldetik ere. **Dena dela, zein faktore ikusten dituzu su-etenak laster etorriko dela esa-teko?**

Perspektibaz ikusita eta irakurketa politikoa eginez, edozeinek suma lezake su-etenaren iragarpenaren ateetan gaudela. Herri batek pausoak ematen dituenean, urrats horiek egiturakoak izango badira, bere denbora eman behar zaio. Ezker abertzaleak Anoetako aldarrikapenaren ondoren izandako ibilbide politikoa aztertu besterik ez dago. Bestetik, Espainiako Gobernuak eta Zapaterok berak botatako keinuak ere hor ditugu. ETAK azkenaldion komunikatuetan azaldutakoek ere norabide aldaketa izan dutela ohartarazten digute. Eurek jakin go dute nola kudeatzen dituzten harremanok. Baino ez da ezker abertzalearen eta alderdi sozialistaren arteko harremanetan dagoen horietako bat izan behar su-eten baten bezperan gaudela antzemateko. Ez dakit noiz edo nola, baina su-etenia izango da. Gero, Kongresuko ebazpenarekin koltxoia erabiliz mintzaidetza ofizial bat ziurtatzeko aukera izango du ETAK Espainiako Gobernuarekin. Hori begi-bistakoa da, azken egunotako ETAREN bonbek kontraesana badirudite ere. **ETA epeak kudeatzen ari dela dio zu eta eragile politikoaren artean nahasmena sortzen. Hura da bake prozesurako giltza?**

Bake prozesuaren muina ETAREN su-etenean jartzen due-

na analisi politiko simplea egiten ari da. ETA eragileetako bat da. Une honetan, denborak administraztzen ari da, giltza duelakoan, baina giltzak ez du funtsik aterik ez badago.

**Bake prozesua urratsak ematen ari den honetan zein paper jokatzen dute, zure ustez, hedabideek?**


Berebizikoa. Zoritzarrez, ez dago komunikabide neutrorik. Iritzia publikoaren sortzaile diren heinean, eragile politikoak hedabideen morroi gara. Alde horretatik, abertzaleok zeregin txikia dugu egungo panorama mediakoaren aurrean. Pentsa ezazu. Espainiako eskuineko hedabideak hor ditugu; *La Razón*, ABC eta *El Mundo* bere etxe lanak txukun betetzen. Prisa Taldeak, bestetik, Zapateroren Gobernuak egindako guztia babesa ematen dio eta Vocento taldeak beste horren beste. Horietan guztietan ez dugu ezer saltzerik. Euskal Herriko hedabideei dagokienez, nahiko lan dugu politikariok, sarritan benetan adierazi nahi duguna egokiro isla dadin.

**Zuitxaropentsu zaude, baina hainbatek uste du egoerak lehengo lepotik jarraitzen duela. "Hamasei hilabete daramagu esne-berbetan, bazterrak nahasten, baina aurre-raegin gabe". Iñigo Urkulluren, EAJ-ren bozeramailearen, berbak dira. Hortaz, zertan gara?**

Lehenxeago ere aipatu dut: herri batek pausoak ematen dituenean, urrats horiek egiturakoak izango badira, bere denbora eman behar zaio. Politika eta herrigintza uztartzeko epe luzera begira eman behar dira pausoak, eta, aldi berean, azpiko korronteak eta mugimenduak aztertu. Perspektiba ez da inoiz galdu behar.

**Zein alderdi daude benetan sinistuta bake prozesuaren abiarraztea gertu dagoela eta zeintzuk ez? EAJk bere esku zegoen guztia egin du bakegintza bidean?**

Une honetan, herriaren aitortzaren eta bere erabakitzeko eskubidearen oinarietatik behera dagoena ez dago gauzak konpontzeko prest, eta, beraz, ez da sinesle. Gatazka politikoa existitzen dela ukatzen duenik egon badago, eta gatazka politiko horren konponbidea halabeharrez eskatzen du Euskal Herriaren aitorrta, eta, ondorioz, bere erabakitzeko eskubidea. Hortxe dago gatazkaren giltza. Printzipiook onartuta, erabakitzeko eskubidearen egikaritzaren inguruoko adostu beharko lirateke. Horiexek lirateke akordioak landu beha-



JOSEBA EGIBAR

Joseba Egibar Aretxabaletan izan zen hango EAJk gonbidatuta.

rreko testuingurua. Gero, akordioa baldin badago kontsulta egongo da, baina lortzen ez bada eta gehiengo demokratikoa badago, kontsulta egin behar da baita ere, prozesuaren itxiera euskal gizar-teak berak eman behar baitu. EAJk, Elkarbizitzarako Bideak

dokumentuan jasotzen den beza-la, egin ditu bere ekarpenak dago-eneko, baina hemen ez dago perspek-tiba eta iniziatiiba galtzerik.

**Igor Angulo eta Roberto Sainzen heriotzen harira ezker abertzaleko egindako kritikak ez dituzu uler-tzen. EAJri gai horren gainean**

**"Bake prozesua ahalbidetzeko ezinbestekoa da giza eskubideen errespetua"**

**"Angulo eta Sainzen heriotzak Espainiako Gobernuak darabilen espelte politikaren ondorio dira"**

**"ETA denborak administratzen ari da giltza duelakoan, baina giltzak ez du funtsik aterik gabe"**

**"Jarrera politiko zeharo kontrajarriak izan arren, elkarrizketa ez dago baztertzerik"**

**ezin zaiola ezer leporatu esan duzu. Nola ulertu behar ditugu gertakariok?**


Igor Angulo eta Roberto Sainzen heriotzek ez digute argazki txukuna erakutsi. Gertaera larri bi izan ditugu eta horiek guztiak Espainiako Gobernuak darabilen espelte politikaren estrategien erakusle dira. Hor dago gertakariaren larritasuna. Nola ulertu, orduan, Espainiako Gobernuak onartu dituen Auzitegi Gorenaren azken ebazpenak? Bultzatu ez ditu bultzatu, baina ebazpenok onartu eta babestu, ordea, egin ditu. Espelte zigorren batuketaren era-bakia onartezina da. Zalantzak ez dago espelte politikaren estrategia eta bere ondorioen giltza eta baita erantzukizuna ere Zapateroren Gobernuarena dela. Nor da, orduan, espelte politikaren eta azken hilketen erantzule nagusi? Ezker abertzaleak benetan sinisten al du gizaseme horiek biak EAJren eraginez hil direla?

Ezker abertzaleak hori bereizten ez baldin badu, ondorengo analisiak ere baldintzatuak izango dira. Kontraesanak kontraesan, espelte politika horren erantzule den alderdi sozialista azken hileko liskar eta enfrentamenduen hesitik kanpo gelditu da. Argi ikusi du panorama PSOEk: "Hau da hau pagotxa! Hauek horrela dabiltsan bitartean, guk jai!". Horretan dabiltsa sozialistak. Hori da egin beharreko irakurketa: alderdi sozialistak pagotxa aurkitu du abertzaleen arteko liskarrekin.

**Nolako prozesua aurreikus dezakegu Otegiren solaskide izateko gaitasuna ukatu nahi duten honetan?**

Ipar Irlandako bake prozesua Adams barik uler ezin zitekeen bezala, Euskal Herriko gatazka politikoaren konponbide bidean ezin uler zitekeen ezker abertzaleko solaskiderik ez egotea. Otegi izan daiteke, baina ezker abertzaleko beste hainbatek ere bete lezake paper hori. Dena dela, Grande Marlaskaren azken jarrera eta erabakiak ikusita, solaskide izateko aukera txikia ikusten diot. **Asteon irakurri dugu Josu Jon Imaz Raxoiren batzartu zela orain dela bi aste. Zein helburu zuen batzarrak?**

Jarrera politiko zeharo kontrajarriak izan arren, elkarrizketa ez dago baztertzerik. Horren harira, batzuen eta besteen posizioak jakitea aberasgarri eta komenigarria da. Lehen hurbiltze gisa uler daiteke bilera, besterik ez.



JOSEKO ARANTZABAL

Bazkaldu aurretik triki-poteoa egin zuten Xabi, Mireia eta Leire trikitilarien doinuaren atzetik.

## 75 lagunek bazkaldu zuten gaztetxearen urtemugan

*Egun osoko jaia antolatu zuen Elgetako Gazte Asanbladak zapaturako, gaztetxearen 10. urtemuga ospatzeko*

Monika Belastegi

Aurreko asteotarako ere ospakizun ekitaldiak antolatu dituzten arren, zapatuan ospatu zuen Elgetako Gazte Asanbladak gaztetxearen 10. urtemuga.

Goizean, triki-poteoarekin hasi zituzten ekitaldiak. Elgetako Xabi, Mireia eta Leire trikitilarien doinuen atzetik herriko tabernetan barrena ibili ziren asanbladako kideak eta herriko ugari. Eguerdiko bazkaria ere txukuna egin zuten: makarroiak, solomoa piperrekin, postrea eta

kafea 75 lagunendako. Eguraldia, gainera, lagun izan zuten eta gaztetxearen kanpoaldean bazkaldu zuten. Fredy Paya eta Julen Uranga bertsolariak ere ikusi genituen, eta Azpeititik Elgetara iristeko bi ordu behar izan zituztela kontatu ziguten bertsotan, bidean lau kontrol egin zizkietelako.

DJ Bull ere bazkarirako iritsi zen. Saioa gauean zeukan, baina bazkalorduan iristea nahiago izan zuen. Bazkariaren truke dultzaina jotzen dakiela erakutsi zuen.

### Datuak

- **10 URTE**  
Horiexek dira Elgetako gaztetxeak bete dituen urteak. Zapatuan ospatu zuten urtemuga eguna.
- **20 BAT LAGUN**  
Gazte Asanblada 20 bat lagunek osatzen dute. Guztia neskak dira, gainera.
- **BAZKARIAN 75 LAGUN**  
Ospakizun bazkarian 75 bat lagun bat ziren zapatuan.
- **MARTXOAK 24-25**  
Egubakoitzera (hilak 24) Panamaren gaineko hitzaldia antolatu dute, 22:00etan, eta zapaturako (hilak 25) helduendako tailerrak, 17:30ean.

### • EUSKAL PRESOAK



JON BEREZIBAR

### ONGIETORIA EGIN DIOTE KARMEN IRIZARRI

Herritar, senitarteko (irudian Urko semenarekin) eta lagun ugari batu ziren zapatuan Antzuolako Zurrategi plazan Karmen Irizar preso ohiari ongiotorri egiteko. Opari ugari jaso zituen eta ohorezko aurreksua egin zioten. Otsailaren 24an geratu zen aske Irizar, zigor osoa bete eta gero -bost urte eta sei hilabete-. Antzuolarrak inkomunikazioa eta torturak salatu zituen preso egen zen bitartean.

### • SAN MARTIN ERRETIRATUEN EGOITZA



JON BEREZIBAR

### 100 URTE BETE DITUZTE OÑATIAR BIK

Oraingo astean mendea bete dute Oñatioko bi erretiratuk, eta hori ospatzeko festa egin zuten San Martin egoitzan zapatuan.

Tomas Aiastui eta Nikolasa Arregi (argazkian) izan ziren zapatuan 100 urte betetzeagatik omendu zituztenak. Eguerdian meza entzun eta bazkaria egin zuten egoitzan bertan adiskide eta senidekin. Arratsaldean, opariak banatu eta bazkalostekoa eginda, dantzaldia izan zuten erretiratuek.



LASAGABASTER  
www.lasagabaster.com

**Albiste izango da**

DEBAGOIENA | HILAREN 27AN ALDATUKO DUGU ORDUA

**Gaur sartuko gara udaberrian;  
18:26an, hain justu ere**

Gaur, astelehena, urtarro berrian sartuko gara. 18:26tik aurrera udaberrian gaudela esan ahalko dugu. Tenporei kasu eginez gero ez da euririk faltako. Andoni Aizpururen esanetan, "Aste Santu bitarteko egunak nahiko lehorrek izango dira, epel egindo du. Aste Santu ostean, berriz, euri asko egindo du, baina hotzik ez. Euria maiatza bitartean egindo du, batik bat, eta ordutik ekaina erdi aldera arte gutxiago egindo du". Ordua ere laster aldatu beharko dugu: martxoaren 27an udako ordutegian sartuko gara. Ordu bat atzeratuko dugu erlojua: 02:00etan 03:00ak izango dira.

DEBAGOIENA | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

**Nazioarteko diseinu lehiaketa  
abiarazi dute Fagorrek eta MUk**

Diseinu industriala sustatu eta etxetresna elektrikoen arloan egiten diren lan aipagarrienak saritzeko, Fagorrek eta MUk Jump Fagor Design Awards Nazioarteko Diseinu Lehiaketa antolatu dute. Munduko edozein unibertsitateko diseinu industrialeko edo arkitekturako ikasleek parte har dezakete, baita diseinatzaile gazteek ere. 3.000 euroko hiru sari egongo dira, eta zortzi aipamen. Internet bidez egingo dute lehiaketa eta [www.fagorjump.com](http://www.fagorjump.com) ataria sortu dute horretarako.

Izenemateari dagokionez, webgunearren bitartez egin behar da martxotik maiatzera bitartean, eta lanak ekainaren 30era bitartean jasoko dituzte.

BERGARA | 19:00ETAN KULTURA ETXEAN

**Ume sahararrak etxearen hartzeko  
batzarra deitu dute etziko**

Udan ume sahararrak etxearen hartzeko dei egin du Bubisher elkartek, herri sahararraren lagunen elkartea. Etzi, eguztena, batzarra egindo dute 19:00etan, kultura etxearen, eta han Oporrak Bakean programaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Fronte Polisarioaren eta Saharanen Lagunen Elkartearen bitartez etortzen diren umeek 7 eta 12 urte bitartean dute eta errefuxiatuen kanpamentuetan jaio eta bizi dira. Kanpamentuotan osasun, hezkuntza eta elikadura egoerak ez dira hoberenak eta udan 50 gradura iristen da tenperatura. Horrekin guztiarekin, programaren helburua da neska-mutikoei oporraldi xamurragoa eskaintza. Egonaldiak bi hilabetekoak dira: uztaila eta abuztua. Interesatuek dei dezakete 670 41 76 07 telefono zenbakira.

ANTZUOLA | GAUR AURKEZTUKO DITUZTE LANOK

**Foru Aldundiak herri barruko  
hainbat errepide egokituko ditu**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Antzuolako hainbat errepide egokituko ditu. Herri barruko errepideak dira, eta egokitze lanok gaur goizean aurkeztuko dituzte. Horrekin batera, Udalak bultzatutako Gizartetxe Programa ere aurkeztuko dute ekitaldi berean.

Udaletxearen egingo dute aurkezpena, 11:00etan, eta han egongo dira Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatea eta Josu Agirrezabala Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako zuzendari nagusia.

BERGARA | HILAREN 24AN IZANGO DA

**Jardun elkartearen kantu afarirako  
izenemate epea gaur bukatuko da**

Jardun Euskara elkarteak kantu afaria antolatu du hirugarrenez. Aurreko bi aldiaten izandako arrakasta ikusita, aurten berriz egitea erabaki dute. Hilaren 24an izango da afaria, eta izenematea zabal dago. Horretarako, deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira. Prezioa 19 euro da; bazkide izanez gero, berriz, 16 euro.

Kantu afariko egitaraua da: 20:00etan trikipoteoa egingo dute Pol-Pol tabernatik abiatuta; 21:00etan afaria izango da Artatse elkartearen eta afaltzen bukatu eta gero, kantu-liburuxka banatuko dizkiete parte-hartzaleei abestien hitzak jarraitu ahal izateko.

**Hitzorduak****OLINPIADAK ETA SAGARDOTEGIRA IRTEERA ARETXABALETAN |  
Kirolegiko erabiltzaile guztiekin dute ekintzotan parte hartzeko aukera**

Goiena Sport-ek, Aretxabaletako kirole etxeko zerbitzua ematen duen enpresak, olinpiadak antolatu ditu apirilaren 1erako, eta izena emateko epea zabalik dago kirolegiko edozein jardueratan dabiltsanendako. Goiz horretan, badmintona, hockeya eta herri kirolek egiteko modua izango dute herri-

ko kirolezale guztiekin. Olinpiadak badira ere, ez daude txapelketa moduan pentsatuta, batera ondo pasatzeko jarduera moduan baizik.

Plana ez da hor bukatzen: eguerdian, autobusa hartu eta Hernaniko sagardotegira joango dira. Afaltzeko izango dira bueltan.

**ANTZUOLA |****• Interneteko liburutegien  
gaineke ikastaroa dago**

Aurkitu zure liburua delako Internet ikastaroa emango dute hilaren 23an, eguna, KZgunean, 10:00-11:00. Interneteko liburutegien gainekoak irakatsiko dituzte.

**• Udalekuetarako begiraleak  
behar ditu Txatxilipurdik**

Udalekuetan begirale izan gura dutenek curriculuma eta izenemate orria entregatu behar dituzte elkartean.

**ARAMAIO |****• Adobe Acrobat programaren  
gaineke ikastaroa dago**

Gaur, astelehena, emango dute ikastaro hori KZgunean, 10:00-12:00 ordutegian.

**BERGARA |****• Haur Hezkuntzako umeen  
gaineke hitzaldia**

6 urterako artekako umeen gainean hitz egingo du Arrate Benagoa pediatrak hilaren 23an, Aranzadi ikastolan, 18:30ean.

**• Kalagorrira irteera antolatu  
dute erretiratu elkartekoek**

San Joxepe elkartekoek Kalagorrira (Calahorra) bidaia antolatu dute hilaren 23rako.

**• Odola ematera joateko dei  
egiten dute**

Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguztena, seminarioko lokaletan, 18:30ean.

**• Jaietako Koadrilen Eguna  
antolatzen hasteko batzarra**

Mendekosteetako Koadrilen Eguna antolatzen lagundu nahi dutenekin batzarra egingo du Udalak hilaren 23an, eguna, kultura etxearen, 19:00etan.

**ARRASATE |****• Hezkidetzaren inguruko  
hitzaldia Santa Teresan**

Umeel, zoriontsu izateko, bide berriak eskaintzen hezkidetzat hitzaldia egingo dute gaur, astelehena, Arizmendiko Santa Teresia gunean, 17:30ean.

**DEBAGOIENA |****• Auzolandegiak eta  
lankidetza programak, abian**

Jaurlritzak bi programa antolatu ditu: auzolandegiak, eta Euskadiko Gazteak Lankidezkan programa, hiru hilabeteko lankidetza programa 100

gazterendako. Argibideak eta izenematea, [www.gazteaukera.net](http://www.gazteaukera.net) webgunean.

**ESKORIATZA |****• Norbere errealizazioaren  
gaineke berbaldia izango da**

Errealizazio pertsonala: zerzagatik eta nola? hitzaldia egingo dute gaur, astelehena, Ibaarraundi museoan, 18:00etan.

**ONATI |****• Nagusien integrazioaz  
berbaldia Pake-Lekun**

Nagusien integrazioa eta parte-hartzea gizartean, hori izango da Aitziber Indart hizlariak landuko duen gaia bihar, maritzena, Pake-Lekun, 17:00etan.

**• Haur Hezkuntzaren gaineke  
tailerra hasiko da asteon**

Haur Hezkuntzaren inguruko tailerraren lehen zatia emanago dute etzi, eguztena, Txantxiku ikastolan, 18:30-20:00.

**• Nerabeen inguruko hitzaldia  
egingo dute gurasoendako**

Aita eta ama, holakoak gara nerabeak! delako hitzaldia egingo dute egunean, hilak 23, Elkar Hezi ikastetxeko mediatikan, 18:30ean.

**• Bi ikastaro antolatu ditu**

Zuazola-Larraña institutuak Honako ikastaroak emango dituzte: tornu CNC prestaketa eta programazioa, eta eguzki energia fotovoltaikoarena. Informazioa: 943 78 21 50.

Ura funtsezkoa da. Funtsezkoa, bizi ahal izateko. Pertsonen eta herrien garapen eta ongizaterako. Baino ura baliabide mugatua da, zaindu eta arduraz kontsumitu beharrekoa. Ez dezagun ura alferrik galdu. Ez dezagun *kutsatu*. Ez dezagun *xahutu*. Bestela, hemen galduko ditugu basoak. Hemen hasiko dira lehortek.

Hala deuseztatuko dira gure paisaiak. Hala hilko gure ibaiak. Hala galduko dugu fauna. Horrela joango zaigu ura, eta bizi...



zain dezagun ura. zain dezagun ingurumena. zain dezagun gizadia  
**martxoaren 22a. uraren nazioarteko eguna**

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net  
Gure esku dago

# Iritziaik



**Isilpekoak**

**943 25 05 02**

[goinenkaria@goiena.net](mailto:goinenkaria@goiena.net)

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Equerdietan kamioiak Kanpanzarren**

Gure irakurle batek txistua bidali digu astegunetan Kanpanzarren bazkaltzen duten kamioilariek traban uzten dituztelako kamioiak. "Jatetxeak aparkaleku handia du, baina asko dira bazkalorduan bertaratzen diren kamioilariek. Askok traban uzten dute kamioia. Kanpanzarko bidegurutzera iristen garenok askotan ez dugu Arrasateko noranzkotik datorren zirkulazioa ikusten traban dauden kamioi horiengatik, eta denbora luzea behar izaten dugu hortik ateratzeko. Kamioilarri horiek bost minuto hartuko balitzkete kamioiak ondo aparkatzeko, hobeto ibiliko ginateke guztioak".

• **Urkulu dorete utzi dute**

Txaloak ere iritsi zaizkigu asteon. Urkulun egindako lanen harira idatzi digu irakurle batek: "Aste polita izan da honakoa eguraldiari dagokionez, eta asko izan ginen astelehenean Urkulura igo ginenak. Asko gustatu zitzaidan han aurkitutako. Giro aparta zegoen eta jende andana oinez, antxintxika, bizikletan edo patinetan. Dotore utzi dute inguru; bai, horixe!".

• **Zikinkaia Miguel Altunako bidegurutzean**

Haserre agertu zaigu Bergarako irakurle bat Miguel Altunako bidegurutzean asteburuetan pilatzen den zikinkeriarengan. "Asteburu guztietako kontua da, batez ere zapatu eta domekakoa. Umeak batzen dira hango goxoki dendan eta lurrera botatzen dituzte goxokien plastikozko estalkiak, poltsak eta gainerako guztia. Ez dakit inguruan zaborrontzirik duten ala ez, baina komeni da jartzea. Gero, gainera, zaborra zaborrontzietara bota behar dutela erakutsi, domeka gauean zikinkeria galanta egoten da-eta espaloi horretan".

**Halaxe erantzun digute**

Jaunartzea kalez jantzita egitera behartzen dituzte umeak Erromoko eliza batean. Iamika eragin du. Zer deritzozu?



XABIER AZKOITIA |  
ABADEA

Gizarte kontsumistaren barruan bizi gara. Batzuek fede jarreratik bizi dituzte sakramentuok, baina beste batzuek sinbolo bezala erabiltzen dituzte. Ondo deritzot ebangelioa ospatzeko erak koherentzia badu, baina tamalez askotan ez dauka. Hori da hemen kontua.



MIKEL LEZAMIZ |  
SOZIOLOGOA

Gutxi batetik sortutako joera dugu hori, kontsumismoan ero-ri garelako. Gizarteratzeko sortzen ditugu parafernalia horiek eta ez soilik erlijio-sakramen-tuen inguruan. Gure ahalmena eta handikeria kanporatzeko. Nire ustez, gainera, ez dauka inongo positibotasunik.



EGUZKIÑE ALBERDI |  
LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA

Larregiko polemika sortu du auzi horrek eta ziur nago hiruzpalau gurasoren kontua dela. Txarrenak gara helduak. Gure umeak poli-tenak eta dotoreenak izatea nahi dugu beti, baina horrek ezber-dintasunak sortzen ditu umeen artean, eta ez da komeni. Ondo iru-ditzen zait abadearren erabakia.



ESPE LIZARRALDE |  
KATEKISTA

Katekiston helburua umeek jaunartzea egitea da. Parafernalia egon ala ez umeen fedea lantzen sainatzen gara. Familia ospakizuna izaten da, gainera, eta hori importa zaigu guri. Umeek ilusio handiarekin hartzen dute egun hori, eta normalean, hurrengo urtean utzi egiten dute katekesia.

**Sarean harrapatuta**

**Aloñak lortuko du hirugarren mailara igotzea?**

Denboraldi bikaina egiten ari da Oñatiko Aloña futbol taldea. Une honetan sailkapenaren nagusi dira eta hirugarren mailara igoko dira aurtengo denboraldia postu horretan amaituz gero. Bada, Oñatiko

futbolzaleak gogo handiz joaten dira Aloñaren partiduak ikustera, joko bikainarekin baitabilitza azkenaldian. Baino lortuko dute mailaz igotzea? Galdera hori egin dute Goiena.net-en. Hemen erantzun batzuk.

beraz. Hala ere, UDAk ere eutsi die sailkapeneko lehen postuei eta espero dut hor goian jarraitzea. Zorionak UDARI ere!

Atxabala / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**HERRIKO ARAZOEI ERE BEGIRATU BEHAR ZAIE**

Futbolari hainbeste begira egon beharrean zergatik ez begiratzen gehiago herriko arazoei? Denok aupa Aloña esaten, baina Aloñak irabazi edo galdu bizitzak berdin-beardin jarraitzen du, betiko arazoenkin. Hainbeste diru gastatu

beharrean horretan, hobe da beste gauza batzutan gastatzea.

Txin / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)


**AMETS EGITEAK EZ DIO INORI KALTERIK EGITEN**

Ez da hainbesterako. Aloña gustatzen zaigu batzuei eta beste batzuei ez. Hemen idatzi dugun gehienok gara Aloñaren aldekoak. Ez dut uste denbora guztian bizitzako arazoei begira egon behar dugunik, gauza batzuekin disfrutatu ere egin behar da. Eta batzuk disfrutatuko dute Aloña ikusten eta Aloña 3. mailara igotzen dela amets egiten; eta beste batzuk beste zerbaitkin disfrutatuko dute. Ez dut uste inori kalterik egiten dionik Aloñak; disfruta dezagun denok eta aupa Aloña!

Disfrutau / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**www.goiena.net**

Aloña futbol taldeak lortuko du hirugarren mailara igotzea?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net webgunera](http://www.goiena.net/webgunera)

**HORRELA JARRAITUTA IGOKO DA, SEGURU**

Preferente mailan Aloñak 61 puntu ditu eta lehen postuan dago sailkapen nagusian. UDA, berriz, 54 puntuarekin bigarren dago. Ordizia ere hor dauka atzetik 53 puntuarekin. Okerren Mondra dago hamaikagarren postuan 38 puntuarekin. Nik uste dut Aloñak merezi duela 3. mailara igotzeko txartela. Horrela jarraitzen badu hala izango da!

Miren / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Egunkarietako harribitxiak

### URAREN IV. MUNDU FOROA

Herrialde aberatsetako biztanleek 2005ean botilako ura erosten gastatutakoa inbertitu izan balitz azpiegituran eta tratamenduan, gaur egun gizaki bakoitzak edateko ura izango luke. Botilako ura hirugarren negozio legala da petrolioaren eta kafearen ondotik.

'Gara'  
2006-03-19



### IRAGARKIEN ARRASTOAN

Kaxa txikian iraultza gertatua, apena pare bat edo hiru hamarkadatan, eta aldaketa prozesua ez da eten. Indartsu dator telebista digitala. Ius-entzunezkoen erronka garrantzitsuena izango da horixe, eta Euskal Herrian jada ehun etxetik hamabostetan jarrita dago, gutxi gorabehera. Diru mordoa eragiten duen negozioa da, eta 1999an, esaterako, 59.600 milioi euro

ekoitzi zituzten Europako Batasuneko ikus-entzunezkoek; hamar eurotik zortzi telebistak sortu zituen. Ordaindu beharreko kateek ez dute izan iragarritako arrakasta, eta artean ere publizitatearen finantzazioa ezinbestekoa du telebistak. 147.000 milioi euro bildu zituzten iaz mundu osoko enpresek, eta 2008an %20 gehiago hartuko dute.

'Berria'  
2006-03-19



## Zorroztalea



## Botilak

*Zapatuan, milaka gazte biharamunaz egongo dira Estatuak; udal batzuek (Granadakoak, kasu) karpak jarri dizkiete, halere, hirigunetik urrutia mozkor daitezzen. Egun berean, gazte frantsesek kalera egingo dute berriaz Lehen Lan Kontratuaren aurka. Espanian botilak ikusiko ditugu ostera: ur mineralekoak, pateretako naufragoei harreran eman ohi zaizkienak.*

Vicente Molina Foix  
'El País' | 2006-03-18

Gerardo Markuleta

Botila (*Berriak* dioen moduan), botilo (kalean esaten den legez) edo botilatzar, itzulpen kaxkarrean. Izena gutxienekoa da: izan, botila-biltzarrak dira, hau da, botilen aitzakian –eta botilen inguruan– azken boladan antolatu ohi diren jai-giroko gaztetxo-pilaketa handiak.

Ez da erraza asteotan entzun ditugun topikoei itzuri egitea: "Kalean zergatik edaten dugun? Kubaten prezioengatik", erantzuten dute gazteek kazetari batek mikrofonoa hurbildu orduko (eta egia da pub bateko trago batek balio duen bospasei euroekin gau osorako edari merkeea eros dezaketela hiperrean; ez da gezurra, ordea, hamaika tabernatan kalitate gutxiko alkohola –izan katxi, izan txupito– beren poltsikoko neurrian saltzen dietela.

"Udalak ikusten badu baimenik gabeko kontzentrazio bat egiten"

ten ari dela, desegiteko eskatuko dugu", horra Iruñeko zinegotzi baten hitzak kalean edateko hitzorduon harira; eta badakigu, UPN-koia izanda, desegite hori nori eskatzeko mehatxua egiten ari zen. Granadako udalaren jarrera (harri-garri bada ere, PPkoia) hain juxtu kontrako da: gaztetxoentzako esparrua mugatu, plastikozko komun publikoak jarri...; batzuentzat arduragabekeria, beste batzuontzat kalteak murritzear.

Gazteen jarrerak ez ote dira, azken batean, helduei ikasiak? Taldekeria, auzoekiko axolarik eza, alkoholaren arriskuak gutxiestea...

Granadako nola atera zen ez dakit, Iruñekoaz hona kazetari batzen kontaketa amaiera: "Dena lasai zegoen, dena kontrolpean. Parkean ez zegoen inor. Bi kale harantzago, arkupeetan, gazte koadrila bat, zenbait botilarekin, patxada ederrean".

**"Izan, botila-biltzarrak dira, hau da, botilen aitzakian azken boladan antolatu ohi diren jai-giroko gaztetxo-pilaketa"**

**"Gazteen jarrerak ez ote dira helduei ikasitakoak? Taldekeria, alkoholaren arriskuak gutxiestea..."**

## Tira, tira...



Peli 'Berria' | 2006-III-19

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

#### PASABIDEAN

Orain unibertsitarioak matxinatu badira, auzo periferikoetan etorkinen seme-alabak ziren protestanteak duela gutxi. Su-matxinadak gertatu ahala, soziologi *parisen* guztia galdera egin eta erantzun bila aritu ziren: "atzerriko deitura izan eta periferian bizi den gazteak, beste gazte frantziar petoak baino sei aldi lan aukera urriagoa du".

Karmelo Landa  
2006-03-19

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### KALERA IRTEL

Biolentziarik eta bereizketarik gabeko aro berri baten aurrean gaudela egia baldin bada –hala dirudi, behintzat–, ez da seinale ona aurreiritzi politiko eta taktika interesatuengatik hainbat sektorek euren burua baztertzea zapatuan lokarrik deitutako moduko aldarrikapen batetik.

Editoriala  
2006-03-19

### 'El País'

#### AUKERA KATALANA

Esquerra Republicana Estatutaren adostasuna apurtzeko jarrera erakusten badu, Maragallek aukera izango du agerian jartzeko kritikatu dutenek faltan igoari dioten autoritatea. Bere eginbeharra da Esquerriak komprometitza, edo, bestela, zentzurik izango ez luken alderdi batetik irtetera bultzatu.

Editoriala  
2006-03-19

### 'Gara'


#### URTEMUGA IRAK-EN

Saddam Husseinek egindako gehiegikeriak erabili dituzte aitzakia gisa herri oso baten kontra jotzeko; giza eskubiderik ez dago mila eta bat Abbu Grhaib-en herrialdean. Hilketak, atxilotzeak, torturak... dira Irak askatuaren aurpegia, gaur egun. Gerra zibilaren atarian dagoen herrialdea da Irak.

Editoriala  
2006-03-19

# KIROLA

- Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak 91-80 irabazi zion Suminan taldeari | 15
- Leire Fernandez Bergarako piraguistak urrea lortu du Euskadiko Kopan | 17



**Alberto Garai**  
Athloneko kirol  
mediku  
arrasatearrarekin  
jardun dugu | 26-27

## PREFERENTE MAILA

**ALOÑA MENDI**  
**2-1**  
**ANAITASUNA**

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Elgarresta, Idigoras (Camino, 74. min.), Garai (Moiua, 62. min.), Barrena, Arregi I.a, Sanchez, Igartua, Astigarraga (Arregi II.a, 62. min.), Zubia (Aritz, 24. min.) (Aramendi, 62. min.), Astola.

**Anaitasuna** | Andoni, Azkoiti, Patxi, Rotxa, Alkorta, Ibarbia, Garikoitz (Eguerrilla, 90. min.), Uria (Zabala, 83. min.), Exposito (Tamao, 76. min.), Garikoitz eta Bastida.

**Golak:** | 0-1 Bastida (60. min.), 1-1 Arregi I.a (65. min.), 1-2 Arregi II.a (70. min.).

**Epailea** | Matas jauna. Ez zuen aparteko lanik izan. 65. minutuan, Aloñaren aldeko penaltia adierazi zuen.

**Bestelakoak** | Jende ugari joan zen Azkoagainera partidua ikustera.

### Bikain

#### Erantzuna

Etxeko taldea galtzen hasi zen arren, Aloñako jokalariek ez zuten partidua galduztat eman eta markagailuari buelta emateko gai izan ziren. Lan handia egin zuten irabazteko.

### Kaskar

#### Lehenengo zatia

Anaitasunak gauzak zail jarri zizkion Aloñari. Lehenengo zatian ez zen aparteko jokorik ikusi. Baloaren jabetza ez zuen talde jakin batek izan. Golik ere ez zen ikusi lehenengo zatian.

### Esandakoak

"Partidu oso zaila izan da. Lehenengo zatian galdua ibili gara denok. Partidu txarra izan da bai guretako eta bai ikusleendako".

**IBAN ASTOLA |**  
ALOÑAKO JOKALARIA

"Partiduaren gakoa berdinetaren gola azkar egin izanean egon da. Hortik aurrera guregan sinisten hasi gara".

**ISMAEL EGAÑA |**  
2. ENTRENATZAILEA



Iban Astolak defentsan lan ona egin zuen atzo; taldeari segurtasuna eman zion.

JOSETXO ARATZABAL

### FUTBOLA | IKUSLEENDAKO PARTIDU TXARRA IZAN ZEN

## Asko sufritu arren, etxean geratu ziren hiru puntuak

*Atzo Ordiziak irabazi eta gero, Aloñak garaipena beharrezkoa zuen goian jarraitzeko; asko sufritu eta gero irabazi egin zuten Oñatikoek*

#### Arantzazu Ezkibel

Aloñako jokalari eta jarraitzaileek asko sufritu zuten atzo Azkoagainen. Galtzen hasi zen etxeiko taldea. Oruetaren mutilek markagailuari buelta ematea lortu zuten, eta azkenean hiru puntuak etxean geratu ziren.

#### LEHENENGKO ZATIA TXARRA

Norgehiagokaren lehenengo 45 minutuetan joko gutxi ikusi genuen. Bi taldeak atzean sartuta egon ziren eta erasoan min txi-

kia egin zuten. Aloñak falta bidez egin zituen partiduko lehenengo aukerak. 15. minutuan, Jon Igartua area ertzetik jaurti zuen falta eta baloia gutxigatik kanpora joan zen.

35. minutuan, Jonek erdiratutako beste falta batean, Xabier Elgarrestak buruz ukitu zuen baloia, baina indar barik iritsi zen Aloñako jokalaria errema-tea egitera.

Atsedena gainean zela, Unai Arregik area ertzean bi jokalari atzean utzi zituen, baina jaurti-

keta atezainak gelditu zion. Atsendaldira, beraz, 0-0 iritsi ziren.

Bigarren zatiko 15. minutuan, areaz kanpoko falta jaurtiketa baten bidez Bastidak Azkoitiko taldea aurreratu zuen.

#### PENALTA ETXEKOEN ALDE

60. minutuan, Robertok eskumako hegaletik egindako kontraeraso baten ondorioz epaileak penaltia adierazi zuen Aloñaren alde. Unai Arregik hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura, eta ez zuen hutsik egin.

"Berdinketaren gola azkar sartu izanak mesede egin digu partidua aurrera ateratzeko", esan zigun Ismael Egaña Aloñako 2. entrenatzaileak. Horrela izan zen, Aloñak berdinketarekin gora egin zuen eta arrisku jokaldiak sortu zituen.

Hala, Anaitasunak defentsan izandako akats baten ondorioz etorri zen Aloñaren bigarren gola. Iñigo Arregik egin zuen. Azken minutuan, azkoitarrek zutoine-rajaurti zuten baloia, baina, zorionez, ez zen gol gehiago egin.

### 2. gola Arregi II.ak egin zuen defentsaren huts batez baliatuz

### Azkenera arte sufritu zuten etxeakoek, Anaitasunak zutoina jo zuen-eta

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Bi taldeko jokalariek gogor jokatu zuten, eta epaileak zazpi txartel erakutsi zituen.

## Atzerapauso garrantzitsua sailkapenari begira

UDA  
**2-2**  
ALLERRU

UDA | Eriiz, Sanchez, Gonzalez, Unamuno, Armendariz, Arenatz, Orueta (Kotxo, 55.min), Arrieta (Igurtua, 60.min), Arriaga, Gartzia eta Rodriguez (Espinosa, 65.min).

Allerru | Salazar, Martiarena (Belintxoa, 79.min), Etxarte, Barandiaran, Pedro (Narciso, 70.min), Lasaga (Urdangarin, 77.min), Imaiz, Roteta (Unanue, 61.min), Arake, Lekuona eta Saizar.

Golak: 0:1, Santzezek bere atean (5. min). 1:1 Arenazak (13. min). 2:1 Arriagak (24. min). 2:2 Unanuek penaltz (82. min).

Epailea: Ibañez jauna. Erabakiak hartzeko orduan irizpide ezberdinak erabili zituen.

Mireia Bikuña

Allerruk penaltz lortutako golak ondorio txarrak ekarri zizkion UDAri. Atzerapauso garrantzitsua eman du sailkapenean; izan ere, 55 puntu ditu, Real Unionek bezala.

Partidu hasiera bizia izan zen. Lehen laurdenean bi gol ikusteko aukera izan zuten Ibarra hurbildutako zaleek. Bi golak UDAko jokalariek sartu zitzuten, baina lehena Sanchezek bere atean egin zuen. Hala, Allerru markagailuan aurretik jarri zen 5. minutuan. Eta banako berdinketa areaz kanpotik Arenatzak egin zuen.

Lehenengo ordu erdia bete orduko UDAk bigarrena egin

zuen. Arriagak baloia erdiratzen eta inork ukitu barik zutoinean jo eta ate barrura sartu zen. Atsedenera iritsi aurretik, bada, UDAk partidua bere alde jarri zuen.

### EPAILEAREN LANA

Partidua erabakitzeko aukera oso garbiak izan zituen Recioren taldeak bigarren zatian. Baina ez zituen aprobetxatu. Azkeneko minutuetan epailea protagonista bilakatu zen. Jokaldi eztabaidagarri batean UDAren aukako penaltia adierazi zuen, eta Allerruk ez zuen hutsik egin.

Partidu amaieran UDAko jokalari, entrenatzaile eta zaleak oso haserre agertu ziren Ibañez jaunak egindako lanarekin.

## Azken unean lortutako puntu Mondrarentzat

TOURING  
**1-1**  
MONDRA

Mireia Bikuña

Partidua bukatzean zegoela lortu zuen Mondrak berdinketaren gola. Muruak egin zuen, buruz, falta jaurtiketa baten ondoren. 89. minutua zen.

Hamar minutu lehenago Touringek hartu zuen aurre markagailuan, Auzmendik areaz kanpotik egindako jaurtiketa batekin. Mondrak, gainera, luze-peneko minutuetan aukera garbia izan zuen hiru puntuak eskuratzeko, baina Urrutia atezainak geldiketa bikaina egin zuen.

### HASIERA OREKATUA

Lehenengo zatia nahiko parekuta izan zen; bi taldeek aukera garbiak izan arren ez zuten golik egin norgehiagokoa amaitzeko 10 minutu falta ziren arte.

### Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAIZZAK		SAILKAPENA							
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK	
Real Union-Zestoa	7-1	1.Aloña Mendi	64	29	20	5	4	61	31
Aretxabaleta-Allerru	2-2	2.Orditzia	56	28	18	8	2	50	29
Touring-Mondra	1-1	3.UDA	55	29	16	6	7	48	28
Pasaia-Berio	0-2	4.Real Union	55	29	17	8	4	61	33
Orioko-Irun 1902	0-0	5.Zarautz	50	29	14	7	8	55	32
Aloña Mendi-Anaitasuna	2-1	6.Pasaia	48	29	12	5	12	56	40
Idiazabal-Hondarribia	0-1	7.Mutriku	45	29	13	10	6	38	37
Beti Gazte-Trintxerpe	2-2	8.Trintxerpe	44	29	13	11	5	48	45
Mutriku-Hernani	0-0	9.Touring	43	29	12	10	7	39	36
Ordizia-Zarautz	2-1	10.Hondarribia	42	29	12	11	6	35	44
Allerru-Zestoa		11.Mondra	39	28	11	11	6	39	30
Mondra-UDA		12.Hernani	38	29	10	11	8	38	41
Berio-Touring		13.Berio	37	29	10	12	7	41	43
Irun 1902-Pasajes		14.Anaitasuna	32	29	7	13	9	29	46
Anaitasuna-Orioko		15.Idiazabal	30	29	7	13	9	29	46
Hondarribia-Aloña Mendi		16.Zestoa	30	29	7	13	9	38	57
Trintxerpe-Idiazabal		17.Irun 1902	28	29	7	15	7	38	57
Hernani-Beti Gazte		18.Orioko	25	29	5	14	10	36	64
Zarautz-Mutriku		19.Beti Gazte	19	29	3	16	10	30	51
Ordizia-Real Union		20.Allerru	17	29	3	18	8	25	64

### Nesken Gipuzkoako Txap. Igoera fasea



JOSETXO ARANTZABAL

### URTEKO PARTIDURIK TXARRENA ATXABALPEN: 1-1

Horrela laburbildu zigun Iñigo Zabalok bere taldeak domeka goizean Atxabalpen jokatutako partidua. "Lehenengo zatian gaizki jokatu dugu eta bigarrenean oraindik okerrago. Urteko partidurik txarrena egin dugu, duda barik". Mondraren gola 30. minutuan lortu zuen Luluk. Amara Berrik berdinketaren sartu zuen.

VASCONIA  
**1-3**  
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Bergara 1-3 nagusitu zitzaison Vasconiari atzo arratsaldean. Garaipen horri esker, Bergarak igoera txartela lortzeko lehian jarraitzen du; izan ere, Zumaiako galdu egin du asteburuan.

Lehenengo zatian Bergara izan zen nagusi zelaian. Joko ona egin zuten Josu Zubiaren mutilek, batez ere erasoko jokoan. Lehenengo gola Canasek egin zuen penaltz. Eta handik gutxiira, Martinek bigarrena egin zuen Bergararentzat.

Bi goleko aldea zutela ikusirik, Bergara lasaitu egin zen. Defentsan espazio handiagoa utzi zuten eta Vasconiak ongi aprobatxatu zituen zulo horiek gol aukerak egiteko. Horrela, atsedena baino lehen, golen bat egiteko aukera izan zuen etxeeko taldeak, baina azkenean ez zen golik

izan Bergararen atean. Atsedernaldira, horrenbestez, 0-2 aurretik joan zen Bergara.

### LAU PARTIDU ETXEAN

Bigarren zatiaren hasieran Vasconiak gola egin zuen. Baina Canasek lasaitasunaren gola egin zuen Bergararentzat, hirugarren gola. Hala, partidua erabakita zegoen.

Hain zuzen, sei partidu geratzen zaizkio Bergarari liga amaitzeko. Horietatik lau etxean jokatu behar ditu; hortaz, nahiko txapelketa amaiera ona du. Mailaz igotzeko etxeoko partiduak irabaztea beharrezko izango dute.

- NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

# Irabazteko grina falta izan zitzaien Aloñako neskei

*Oñatiarrak  
zuloan daude,  
eta liga  
bukatzeko bi  
partidu jokatu  
behar dira*

VERKOL ALOÑA  
**12-19**  
URDAIBAI

Verkol Aloña | Guridi, Barrena, Goñi (3), Suarez, Larrañaga, Unamuno (3), Moreno (1), Ruiz (1), Elortza, Quintas (1), Manuel (3) eta Hernandez.

Urdaibai | Aranburu (2), Bideguren (4), Gondra, Garai (3), Aranburu, Olarraaga (2), Fernandez (3), Azpiazu (1), Apeztegia, Sagasti (2) eta Carracedo (2).

Golak bost minuturo: Atsedenean: 8-9. Bigarren zatian: 9-11, 9-13, 10-14, 10-16, 11-17 eta 12-19.



JOSETXO ARANTZABAL

Lehenengo zatian, defentsan egindako lanari esker kontraerasoan ateratzeko aukerak izan zituzten etxeekoak.

## Arantzazu Ezkibel

Tentsio barik jokatu zuten Verkol Aloñako neskek zapatuuk partidua. Lehenengo zatian lan ona egin zuten Benitoren neskek, baina bigarrenean gainbehera izan zuten eta lau gol egi-tea besterik ez zuten lortu. Azkanean, zapi goleko aldea aterazieten bizkaitarrek oñatiarrerai.

Aloñako neskek lehenengo zatian ondo jokatu zuten. Defentsan gogor aritu ziren eta Urdai-baikoek arazoak izan zituzten atea zulatzeko orduan. Defentsan egindako lanari esker, baloiak lapurtzea lortu zuten oñatiarrak.

## SAILKAPENEKO ZULOAN

Defentsan erabat galdua ibili ziren Aloñakoak; bizkaitarren erasoa gelditzeko indar barik geratu ziren. Urdaibaikoak samur sartzen ziren sei metroe-

taraino. Eta barneratze horiek markagailuan aldea handitzeko balio izan zieten.

Defentsan gaizki aritzearaz gain, erasoan lau gol bakarrik egin zituzten. Emaitza horrekin, Aloñak sailkapeneko zuloan jarraitzen du. Bi partidu geratzen dira liga amaitzeko, eta Aloñak gogor lan egin beharko du sailkapena txukundu nahi badu.

- LEHENENGOKO TERRITORIALA, IGOERA TXAPELKETA

# Bigarren zatian galdu zuten

URDANETA  
**25-21**  
FORD MUGARRI

Urdaneta | Uriarte (2), Gutierrez (2), Berasategi (7), Azkona, Karkagam, Otxoa, Jauregi (2), Kintero (5), Torres (1), Lusa, Mujika, Vallejo, Montoya eta Ortega (6).

Ford Mugarrri | Egaña, Kalle, Jonan (1), Aitor E, Eneko, Urrutia, Aitor G, Ruben, Lonbide (3), Altzelai (3), Isasmendi (9), Otegi (5) eta Manu.

Golak bost minuturo: 3-3, 6-6, 7-7, 9-10, 10-13, 12-14. Atsedena. 14-16, 17-16, 21-18, 23-20, 25-21.

## Mireia Bikuña

Lehenengo zatian egindako lan bikainak ez zien emaitzarik eman Andoni Arandoren mutilei. Igoera faseko lehen partidua bigarren zatian galdu zuten.

Atsedenaldean markagailuan aurretekizun (12-14), baina ez ziren gauza izan alde horri eusteko.

## HUTS GEHIEGI

Bigarren zatian Urdanetak defentsa aldatu zuen, eta horrek Arandoren taldea erabat nahastu zuen. Gainera, kanpotik jaurtiketa egiteko zailtasun handiak izan zituz-



ARTXIBOA

Igoera faseko lehenengo partidua galdu du Ford Mugarrrik.

ten. Ford Mugarrrik huts gehiegi egin zituen: hiru kontraeraso eta bi penalti huts egin zituen bigarren zatian. Garaipenak ihes

egin arren, Andoni Arandoren ustez, Urdaneta, Donibane eta Ford Mugarrri taldeak dira igoeira lortzeko faboritoak.

- KOPA TXAPELKETA

## Aloñak 30-30 berdindu zuen Tolosaren aurka

A.G.

Oñatiarrak kopa txapelketako lehenengo partiduan puntu bat ekarri zuten Tolosatik.

Iñigo Aranburu Aloñako entrenatzaileak esan digunez, azken momentuko lesioak direla-eta zortzi jokalarirekin bakkari joan ziren Tolosara. Hala ere, partidu ia guztia aurretik ibili ziren. Bukaeran defentsan gaizki aritu ziren eta, hori dela eta, Tolosak gol mordoa sartu zituen; partidua berdintzeraino.

Aipatzeko da Aloñaren aldetik 30 goletatik Bernalek eta Joxek 27 egin zituztela.

- KOPA TXAPELKETA

## Arrasatekoek txarto hasi dute kopa txapelketa

A.G.

Arrasate Eskubaloik galdu egin zuen atzo Donostiako Gros taldearen aurka, 25-23.

Andoni Arandok esan digunez, Arrasateko taldeak defentsan lan ona egin zuen. Erasoa, ordea, defentsa mistoa jasan zuten, eta, horren ondorioz, baloi asko galdu zituzten. Donostiarrek kontraerasoan min handia egin zieten arrasatearrei.

Partidua amaitzeko gutxi falta zela berdinduta ziren bi taldeak. Baino Arrasatekoek hiru eraso huts egin zituzten jarraian, eta ihes egin zien partiduak.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Urdabai 12-19

#### IGOERA TXAPELKETA MUTILAK

Urdaneta-Ford Mugarrri 25-21

#### 1. ETA 2. TERRITORIALA KOPA

Tolosa-Arrirutz Oñatioko Kobak	30-30
Gros-Arraste Eskubaloi	25-23
Bergara	atsedena

#### GAZTE MUTILAK

Usurbil- Aloña Mendi	atzeratuta
Amenabar-Gatz Museoa Jakion	33-28
OET BKL OKE-Bergara	25-14

#### GAZTE NESKAK

Verkol Aloña-Cometel Elgoibar atzeratuta	
Bergara-Urola Premank	33-13

#### KADETE MUTILAK

Gatz Museoa Jakion-Legazpi	17-22
Aloña Mendi-Usurbil	26-26

#### KADETE NESKAK

Verkol Aloña-Leizaran txiki	16-16
-----------------------------	-------

- LEHENENGKO MAILA, IGOERA TXAPELKETA

# Laugarren laurdenak erabaki zuen

*Mugarri Alkesaren azken partiduak laugarren laurdenean erabaki dira; Leioan galdu egin zuten eta zapatuan, berriz, irabazi*

MUGARRI ALKESA  
**91-80**  
SUMINAN

**Mugarri Alkesa** | Gamarra, Domingo, Mallabiabarrena, Biain (12), Barberena (6), Herzog, Kintana (20), Hernandez (14), Alartzia (20), Aranburu, Biain (20) eta Iasa.

**Suminan** | Rabano (20), Barroso (2), Codesido (10), Jubera (17), Duke (8), Ruiz de Azua, Iartza, Momoto (14), Castrillo, Bueis (9), Cadalso eta Aparicio.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 18-15. Bigarren laurdena 48-35 Hirugarren laurdena 69-67. Laugarren laurdena 91-80.

## Mireia Bikuña

Gogotik lan egin behar izan zuen Mugarri Alkesak zapatuko partidua irabazteko. Beste behin, azken laurdena izan zen erabakigarria.

Laugarren laurdena bi puntuko aldearekin hasi zuen Mugarri Alkesak. Hasieran, baina, aldea handitzeko gai izan zen.

7-0ko partziala eginez markagailuan aldea hartu zuen Mugarri Alkesak. Baina azken laurdenean Suminan taldeak partiduan izan zen berdinketa bakarra lortu zuen (78-78), eta aurretik ere egin zen: 78-80.

Une harten, Suminan taldeko jokalari batetik urratsak egin zituen eta hurrengo jokaldian epaileek nahita egindako falta adierazi zuten Mugarri Alkesaren alde. Alartzia zegozkion jaurtiketa librean saskiratu zituen, eta, hala, etxeoko taldeak aldea hartu zuen berriro markagailuan.

Azken minututan Alartzia beste lau jaurtiketa libre sartu zituen. Azken uneetan zaleek berriro ere jarrera bikaina era-kutsi zuten, eta taldea etengabe animatu zuten.

## GAINERAKO LAURDENAK

Beste hiru laurdenetatik lehenengo eta bigarrena izan ziren berdintsuak. Bi tarte horietako lehenengo minutuetan markagailuan aldea hartu arren, Mugarri Alkesak ezin izan zuen partidua erabakita



JOSEKO ARANTZABAL

Biaiek lan polita egin zuen errebotear hartzeko orduan.

utzi. Bi laurden horietan alda-keta bakarra egin zuen entre-natzaleak.

Hirugarren laurdenean partidua erabakitzeko aukera izan zuen Gorka Zurutuzaren taldeak, 15 puntuko aldea izan baitzuen tarte horretan. Laurdena bukatu aurretik bi saskiratzetan egin zituen Arrasatek eta talde bizkaitarra berriro bi puntura hurbildu zen. Partidua,

esan bezala, azkeneko laurde-nean erabaki zen.

## IGOERA FASEA

Zapatuko partidua irabazita, Askartzaren aurkako porrota ahaztu duela erakutsi zuen Mugarri Alkesak. Igoera fasea amaitzeko bost partidu gelditzen dira, eta Arrasateko taldeak oraindik ere sailkapeneko hirugarren tokian jarraitzen du.

- NESKE BIGARREN MAILA

# Zuloan jarraitzen du Eskoriatzak

ESKORIATZA  
**36-59**  
AUTOCARES ARTIEDA

**Eskoriatza** | Laborda (3), Gomez, Caceres, Garai, Murillo, Usabiaga (8), Soriano, Exposito (14), Balanzategi, Etxeberria (2), Agirrebalaga eta Alartzia (8).

**Autocares Artieda** | Iriarte (12), Burdaipas (7), Lizano (5), Quintana (6), Uriz, Barosain (4), Iriarte (6), Iriarte, Usilano-va (9) eta Alcon (10).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 7-9. Bigarren laurdena 17-26. Hirugarren laurdena 22-39. Laugarren laurdena 39-59.

## Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak 36-59 galdu zuen etxean Autocares Artiedaren aurka. Norgehiagoka ondo hasi zuten etxeekoek; partiduaren erritmoa bere gain hartu zuten eskoriatzarrek.

9. minutuan aurretik zen etxeeko taldea. Baina lehenengo laurdena amaitzeko gutxi falta zela bi saskiratzetan jarraitzen har-tu zituzten, eta azkenean 7-9 atze-tik amaitu zuten.

Bigarren zatian Autocares Artiedak markagailuko aldea handitu egin zuen. Etxekoak banakako defentsarekin hasi



JOSEKO ARANTZABAL

Aitziber Soriano eta Maite Usabiagak lan ona egin zuten defentsan.

ziren arren, zonakakoa egitera pasa ziren. Entrenatzaleak adie-razti digunez, helburua 60 pun-tu baino gutxiago jasotzea zen.

**SAILKAPENEAN AZKENAK**  
Zapatuko porrotaren ostean Eskoriatzak sailkapeneko zulo-tik atera ezinda jarraitzen du.

- SENIOR MUTILAK

# Arazo barik irabazi zuen Aloñak (28-47)

A.G.

Aloña samur nagusitu zitzaien Donostiako Internacional taldeari. "Estutu barik atera gara. Gauza berriak probatu nahi geni-tuen, bai defentsan eta bai era-soan", adierazi digu Gorka Judez entrenatzaleak.

Partiduak ordubete eskas iraun zuen. Lehenengo zatia bi puntu atzetik amaitu zuen Aloñak. Bigarrenean, defentsan estutzen hasi ziren eta arazo barik markagailuan aurre hartu zuten. Azkenean 19 puntuko aldea ate-ra zion Aloñak etxeko taldeari.

- SENIOR MUTILAK

# Luzapenean nagusitu zen Candy (70-72)

A.G.

Ia partidu guztia galtzen egin eta gero, Candy Bergarak luzapenean irabazi zion Ogiberriri.

Partidua gaizki hasi zen ber-gararentzat. Atsedenean 14 pun-tu atzetik ziren. "Donostiarak gu baino handiagoak ziren eta sas-ki azpian puntu asko egitea lortu dute", esan digu David Uri-bina Bergarako entrenatzaleak.

2. zatian jokoa azkartu zuen talde mahoneroak eta partidua berdintzea lortu zuen. Luzape-nean etxeko taldea hiru jokala-rirekin gelditu zen. Hori aprobe-xtatuz, Candyk 70-72 irabazi zuen.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

1.MAILA IGOERA TXAPELKETA  
Mugarri Alkesa-Suminan 91-80

BIGARREN TERRITORIALA NESKAK  
Eskoriatza-Autocares Artieda 36-59

### SENIOR MUTILAK

CD Internacional-Aloña Mendi 28-47  
Ogiberrri Juventud-Candy Bergara 70-72

### SENIOR NESKAK

Aloña-Irun Hondarribia 26-63

### GAZTE MUTILAK

STL Azkune-Mugarri Alkesa 38-78  
Loyola B-Aloña Mendi 52-31  
La Salle-Araneta 56-52

### GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-BKL-CAF 33-38  
Eskoriatza-Bera Bera Ulia 28-56

### KADETE MUTILAK

Aloña Mendi-Andraitz 38-55  
Easo Loyola-Mugarri Alkesa 54-74

### KADETE NESKAK

Eskoriatza atsedena

URTZI AMIANO | ARRASATEARRA, BEASAIN FUTBOL TALDEKO ATEZAINA

# "Atezaina harroa izan behar da, nahiz eta kikilduta egon"

Xabier Urtzelai

**Zelanikusi zenuen Realaren eta Bar-tzelonaren arteko norgehiagoka?**

Egia esateko, tarteka ikusi nuen partidua. Lehenengo zatia amaitutakoan, baloiaren jabetzaren datuek argi utzi zuten dena: %25 Realaren alde, eta %75 Bar-tzelonaren alde.

**Atezain zaitugula aprobetxatuta:****Riesgoren lekua hartu du Albertok.**

Niretako Riesgo sekulako ateza da, dohain mordoa dituena; eta, ausarta dela da dohain horietako bat, ausartegia batzuetan. Behar ez denean ere arriskatu egiten da; inork ez lioke ezer esango ate azpian geratuko balitz, baina aurrera egiten du, eta horrela jokatuta gaitza da beti asmatzea. Albertok ez du horrelakorik egingo, ez da horrenbeste arriskatzen; horren alde egin du Arxonadak. **Bartzelonak Leo Franco fitxatu gura du, Valdesek konpetenzia izan dezan.**

Aurrelariekin moduan, atezañekin ere gauza bera gertatzen da. Konpetenzia izanez gero, jokalariak gehiago ematen du. Gainera, Leo Franco oso jokalari ona da. Argentinako atezañen gaitasunak izanda ere europarren moduan jokatzen du. Aurrez aurrekoetan eta ate azpian ondo moldatzan da, baina ez da atezañ estatikoa, arean aurrera eta atzea ibiltzen da. Esango nuke hori hemen ikasi duela.

**Eta, bigarren gaztarao dago Cañizares.**

Lagun batek esaten duen moduan, *'Cañete' Jainkoa da*. Atezañaren prototipoa da, harroa eta segurtasuna ematen duena.



XABIER URTZELAI

Realeko, Gasteizko Aurrerako eta Beasaingo atea defenditu ditu Urtzik.

## Atepean harrotasuna beharreko da.

Baietz esango nuke. Harroa izan, eta nahiz eta kikilduta egon harrotasunez jokatu, kontrarioari gehiago zarela erakusteko. Hori

bai, ez dago zertan Valdes bezain harroa izan behar...

**Gazte mailan, Realarekin jokatzen Casillas izan zenuen aurrean. Nork esango luke munduko onenetakoia izatera iritsiko zela.**

Neure buruari ere zenbatetan esan diodan hori... Orduan 18 urte nituen nik, eta berak 16 urte baino ez. Eta, ordurako banekien zer nolako lana egiten zebilen Madriden. Bidea egina izan du, baina era-kutsi du zelako atezañ ona den. Dituen gabeziak atepeko geldituekin estaltzen ditu.

**"Lagun batek esaten duen moduan, 'Cañete' Jainkoa da"**

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

## EMAIZZAK

Celta-Athletic	0-1
Racing-Valentzia	2-1
Espanyol-Osasuna	2-4
Cadiz-Alaves	0-0
Sevilla-Mallorca	1-1
R.Madrid-Betis	0-0
Malaga-Zaragoza	0-1
Getafe-Deportivo	1-2
Real-Bartzelona	0-2
Vila-real-Atletico	1-1

## HURRENGOAK

Bartzelona-Getafe
Osasuna-Real
Deportivo-Malaga
Betis-Racing
Valentzia-Vila-real
Mallorca-Cadiz
Alaves-Celta
Athletic-Espanyol
Zaragoza-R.Madrid
Atletico-Sevilla

## SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	64	28	20	4	4	66	25
2. R.Madril	53	28	16	7	5	50	26
3. Valentzia	52	28	14	4	10	38	23
4. Osasuna	52	28	16	8	4	39	32
5. Sevilla	45	28	13	9	6	36	30
6. Celta	45	28	14	11	3	29	28
7. Vila-real	44	28	11	6	11	38	27
8. Deportivo	43	28	12	9	7	38	32
9. Atletico	42	28	11	8	9	39	27
10. Zaragoza	39	28	9	7	12	38	37
11. Getafe	37	28	10	11	7	37	36
12. Racing	32	28	7	10	11	26	32
13. Espanyol	30	28	8	14	6	29	45
14. Athletic	29	28	7	13	8	30	37
15. Mallorca	28	28	6	12	10	28	43
16. Real	28	28	8	16	4	35	53
17. Alaves	27	28	6	13	9	30	45
18. Betis	27	28	6	13	9	24	39
20. Cadiz	26	28	6	14	8	20	36
21. Malaga	22	28	5	16	7	29	46

**Kiniela**  
KINIELA

1. Vila-real-Atletico	X
2. Sevilla-Mallorca	X
3. Cadiz-Alaves	X
4. Celta-Athletic	2
5. Espanyol-Osasuna	2
6. Getafe-Deportivo	2
7. Malaga-Zaragoza	2
8. R.Madril-Betis	X
9. Racing-Valentzia	1
10. Elche-Albacete	1
11. Murtzia Hiria-Hercules	1
12. Tenerife-Xerez	1
13. Sporting-Numantzia	1
14. Valladolid-Castellon	1
15. Real-Bartzelona	2



## Harmailatik

## Ezuste barik, gidoia beteta

Xabier Urtzelai

**Bartzelona trankil.** "Partidu lasaia izan da, eurek ez dute aurrealdean presionatu eta guk ez dugu eraso egin". Zapatuko norgehiagoka eta gero Frank Rijkaarden adierazpenak dira horiek. Kontrarioak norberaren etxeen lasai jokatu duenean gauzak ondo egin ez diren seinale. Realak lehenengo 20 minutuak izan zituen aurrez ezarrita zegoen gidoian ezustea emateko. Arkonadaren mutilek gol aukera garbiak izan zituzten, baina Bartzelona izan zen golak erraz egin zituen.

**Benetako guda, orain.** Kirol egunkariek bat egiten dute Realaren benetako guda orain hasten dela esaterakoan. Gogoan izan talde txuriurdinak bi norgehiagoka jokatu behar dituela jarraian kanpoan (Osasuna eta Getafe). Elkarrizketa egin diogun Urtzi ez dator horrek bat: "Bi zelai

horietan puntuak lortzea gaitza izango da, nahiz eta eskuratzentzen duten dena ongietorria izango den. Realak etxeen egin behar da indartsu, norgehiagoka horiek irabazi behar ditu, etxetik kanko irabaztea...". Kontua da, Realak dagoeneko hiru partidu galdu dituela etxeen jarraian, nahiz eta kontrario gogorren kontra izan. Coruña egin bazuten, Reino de Navar... Sadarren zergatik ez?

**Martinez de Irujo.** Pilotari nafarrak lehenago aipatu ditugun Rijkaarden adierazpenak entzun izan balitu, jakingo luke atzoko finala amaitutakoan zer esan: "Partidu lasaia izan da, aurrealdean eurek ez dute-eta eraso egin". Kontrara, berak bai egin zuen eraso, ezker-eskuin, batzuetan ondo eta beste batzuetan ez, baina denetan hor. Aimar beldurtuta ibili zen, bere burua makal ikusi zuelako, edo kontrarioa indartsuegi.

## Osasuna Europara begira

Baina Txapeldunen Ligara, eta ez UEFAra. 52 punturarekin, gorritxoek harrapatu dute Valentzia eta dagoeneko zappi puntura dago atzetik datorren Zaragoza.

## Eibarrek atzera pausoia

Sailkapeneko azken postuan, mailari eusteko Eibar taldeak irabazi egin behar zuen Almeriaren kontra. Olaberri mutilek, baina, 0-1 galdu zuten Ipuruan. Etorkizun iluna.

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa



DUATLOIA OÑATIN | 260 PARTE-HARTZAILE IZAN ZIREN ZAPATUAN OÑATIN

# Laurent Galinier frantziarra izan zen azkarrena Oñatiko helmugan

*Oñatiko proba euskal triatloizirkuiturako puntuagarria da; eguraldia lagun izan zuten*

Arantzazu Ezkibel

Laurent Galinier nagusitu zen Oñatiko XV. duatloian. Kirolari frantziarra lehenengo momen-tutik ibili zen lasterketaren buruan eta azkenean ez zuen hutsik egin.

Bigarren Hector Llanos gas-teitzarra sailkatu zen. Deba-goiendarren artean, Ander Agirre Antxintxika taldekoa izan zen azkarrena (8.en) eta emakumeen artean Ainhoa Murua zarauzta-ra helmugaratu zen lehenengo.

## HASIERATIK AURREAN

Korrika, Oñatiri lau kilometroko bi bira eman zizkioten parte-hartzaileek. Lehenengo momen-tutik lasterketaren buruan jarri ziren Laurent Galinier, Hector Llanos eta Steven Mac Gregor eskoziarra. Boxetara hirurak bateratsu iritsi ziren, korrika egiteko oinetakoak erantzi eta bizikleta hartzen.

Bizikletan, 39 kilometroko ibilbidea zuten egiteko. Oñatiko plazatik irten, Elorregin (San Prudentzio) Bergara aldera har-tu eta Deskarga igo ostean Uda-nan behera berriro ere Oñatira. Han, hasierako taldea apurtu egin zen: "Hirurak ondo kon-pondu gara, begirada bat nahi-koia izan dugu zer nahi genuen

jakiteko", esan zigun Laurent Galinierrek helmugan. Hala ere, frantziarrak eta Hector Llanosek jarritako erritmoa ezin izan zuen jarraitu Mac Gregor eskoziarrak. Hura atzean gelditu zen, eta bes-te biek egin zuten Udanaren behe-ra. Boxetara batera iritsi ziren frantziarra eta euskalduna, bai-na Galinierrek duatloietan espe-zialista dela erakutsi zuen oine-takoak aldatzeko orduan: Oñati-ko plazatik 20 segundoko aldearekin atera zen azken lau kilometroak korrika egitera.

Azkenean, frantziarra izan zen lehenengo helmugara iris-ten, 1:42:54 denborarekin. Pozik azaldu zen lortutako garaipena-rekin. Oñatiko Triatlo Taldeak egindako lana goraipatu zuen irabazleak: "Antolatzaleek izan duten ardura bikaina izan da", esan zigun Galinierrek.



JOSEKO ARANTZABAL

260 lagunek hartu zuten parte zapatuko duatloian.

## Emaitzak

### SAILKAPENA


#### LEHENENGOAK

- |                           |           |
|---------------------------|-----------|
| 1. Laurent Galinier       | (1:42.54) |
| 2. Hector Llanos Burguera | (1:43:44) |
| 3. Samuel Portelaborde    | (1:46:51) |
| 4. L. M. Urizar Otamendi  | (1:47:02) |
| 5. Aitor Tejeria Aizpurua | (1:47:07) |
| 6. Michel Aginaga Igoa    | (1:47:19) |
| 7. J. I. Garmendia Otegi  | (1:47:32) |
| 8. Ander Agirre Etxarte   | (1:47:54) |
| 9. Fernando Rica Arratia  | (1:47:55) |
| 10. Jon Telletxea Serrano | (1:47:57) |

#### LEHEN DEBAGOENDARRAK

- |                                  |           |
|----------------------------------|-----------|
| 8. Ander Agirre Etxarte          | (1:47:54) |
| 15. J. Aperribai Uribeetxebarria | (1:49:04) |
| 16. Aritz Kortabarria Rajado     | (1:49:11) |
| 23. J. I. Pelayo Alonso          | (1:50:35) |
| 32. Beñat Arnaiz Uribarren       | (1:51:27) |

## • PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA PROBAREN GAINLEAN



LAURENT GALINIER |  
FRANTZIA



AINHOA MURUA |  
ZARAUTZ



ANDER AGIRRE |  
ARRASATE

"Udanan behera Hector Llanosen gurpila jarraitu nahi izan dut, ahal den indar txikien gastatze-ko. Boxetara lehenengo heltzea izan da helburua".

"Nik uste baino hobeto ibili naiz bai korrika eta bai bizikleta gai-nean. Oso pozik nago Oñatin egindako lanarekin. Gogorra izan arren, proba polita izan da".

"Korrika oso ondo hasi naiz. Pena izan da bizikletan, Udanan behera nentorrela, gurpila zulatu iza-na. Hor denbora galdu dut. Hala ere, pozik nago egindakoarekin".

## Labur

# 12 jokalari ibarreko squash txapelketan

Asteberuan hasi da Debagoieneko lagunarteko squash txap-elketa. Hiru fasetan banatu den txapelketan 12 jokalarik parte hartuko dute. Lehenengo eta bigarren faseak ligaxka modura joka-tuko dira, eta azken partiduak kanporaketa bidez erabakiko dira. Finala ekain bukaera alde-ra jokatzea espero dute antola-tzaileek.

Oñatin jokatuko da, bestalde, Debagoieneko tenis txapelketa. Martxoan hasi eta uztailera bitar-tean jokatuko da. Izenematea epea-zabalik dago hilaren 20ra arte Oñatiko Zubikoa kirodegian.

## Piraguismoa

# Urrea lortu du Euskadiko Kopako 2. jardunaldian Leire Fernandezek

A.G.

Atzo, domeka, Saint Pé de Bigorre herrian (Frantzia) jokatutako jardunaldian irabazi zuen urrezko domina Leire Fernandezek. Bergarako Betti-Busti elkarteko piraguistak gazte mai-lako K-1 modalitatean puntua-ziorik altuena lortu zuen, eta hura izan zen irabazlea.

Ez da emaitza makala, kon-tuan hartuta Euskadiko Kopako 2. jardunaldia zegoela jokoan.

## EMAITZA GEHIAGO

Kategoria berean, mutiletan, Markel Cestafe 3. postuan sail-katzen eta beteranoetan Iñaki Gallastegik zilarrezko domina ekarri zuen etxera. Betti-Busti taldeak, gainera, txapelketako 3. talderik onenaren saria jaso zuen.

Laster izango dugu Bergaran piraguak ikusteko aukera, apri-laren 8an Bideberri jokatuko dira-eta Gipuzkoako eskola kiro-leko proba eta V. Karmelo Itu-rospe Memoriala.

## • DEBAGOIENEKO GAZTE OLINPIADAK



ARANTZAZU EZKIBEL

**ARETXABAleta NAGUSI DEBAGOIENEKO OLINPIADETAN**  
Aretxabaleta sailkatu da datorren domekan Donostian jokatuko den herrialdeetako kanporaketarako. Zapatuan, Bergarako plazan lau talde aritu ziren lehian: Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Univer-sitateko taldea. Olinpiada horiek Gazte Topaguneak antolatu ditu.

# TXIRRINDULARITZA DEBAGOIENEAN 06

DORLETAKO AMA, LOKATZA ETA ALOÑA MENDI ELKARTEETAKO TXIRRINDULARIAK GERTU

## Gazte, infantil, kadete eta alebin mailetakoekin lanean

*Amateur mailako talderik ez dagoen arren, ibarreko 11 talde aterako dira errepidera*

Mireia Bikuña

Neguan egindako lana, esfortzua, erakusteko momentua iritsi da: txirrindulari denboraldia abian da. Debagoienean hiru txirrindulari elkar daude: Dorletako Ama, Lokatza Ziklismo Eskola eta Aloña Mendi. Hirurek 30 urtetik gora daramatzate ibarreko txirrindulari gaztekin lanean. Alebin mailan hartu eta ahal den neurrian amateur edo profesional mailarako jauzia eman arte, beraiekin lan egiten duten elkarrekin dira. Denboraldi hasierako aurkezpenak egin eta gero, hemendik aurrera txirrindulariei dagokie zer maila duten erakusteak.

### TALDE AMATEURRIK EZ

Denboraldi honetan ez dago talde amateurrik gure ibarrean. Joan den urteko TKV taldea desagertu egin da. Aloña Mendi eta Donostiberri elkarteeik sinatu-tako hitzarmenaren ondotik, Azpiru Inmobiliaria taldea sortu da. Debagoieneko sei txirrindularik korrituko dute bertan.

Aipagarria da, bestalde, Dorletako Ama elkarteaik talde berri bat jarriko duela errepidean: kadete mailako mendi bizikleta taldea, hair zuzen ere. Ez dira garai onak txirrindularitzaren-



GOIENKARIA

Uzarragako igoera da junior mailako lasterketak garrantzitsuenetako. Martxoaren 25ean jokatuko da.

dako, baina talde berriak sortu daitezkeen adibidea da horixe. Harrobiarekin lanean jardun duen gure hiru klubek gazte, infantil, kadete eta alebin mailetako taldeak osatu dituzte.

### EUSKAL BIZIKLETA

Behe eta amateur mailetako txirrindulari lasterketez gain, goi mailakoak ere igaroko dira guretik aurten eta Euskal Bizikletaren etapa amaiera bat eta hurrengo eguneko irteera jasoko ditu

Leintz Gatzagak. Ekainaren 2an amaituko da Euskal Bizikletako hirugarren etapa Leintz Gatzagan. Ispasterren hasiko den etaparen amaiera hartuko du Leintz Gatzagak eta ekainaren 3koera ere hantxe hasiko da.

Euskal Bizikletak 15. edizioa beteko du aurten. Maiatzaren 31n hasiko da Eibarren. Lehen etapa Astigarraga bukatuko da. Bigarrena Astigarraga eta Ispaster bitarteko izango da. Gure ibarrean igaroko ditu hirugarren eta

laugarren etapetako kilometro batzuk. Gatzagatik Agurainera abiatuko da eta amaitu, urtero moduan, Arraten bukatuko da, ekainaren 4an.

### GURE PROFESIONALAK

Bi txirrindulari debagoiendar ariko dira aurten goi goian, profesionaletan: Markel Irizar Euskaltelen eta Ivan Velasco Orbea. Azken talde horretako zuzendaria izango da Jon Odriozola oñatiarra.

### DEBAGOIENEKO EGUTEGIA 2006

- **Martxoak 25:** Uzarragako Igoera Antzuolan. Juniorrak.
- **Martxoak 26:** Gorlako Igoera Bergaran. Amateurrak.
- **Apirilak 8:** Oñati. Gaztetxoak.
- **Apirilak 22:** Aretxabaleta. Gaztetxoak.
- **Apirilak 24:** Arrasate. Euskadiko Opena. Mendiko bizikleta.
- **Maiatzak 1:** Bergara. Kadeteak.
- **Maiatzak 6:** Aretxabaleta. Kadeteak.
- **Maiatzak 13:** Arantzazuko igoera Oñatin. Juniorrak.
- **Ekainak 4:** Bergara. 23 urtetik azpikoak.
- **Ekainak 10:** Arrasate. Gaztetxoak.
- **Ekainak 10:** Oñati. Kadeteak.
- **Ekainak 17:** Bergara. Kadeteak.
- **Uztailak 9:** Antzuola. 23 urtetik azpikoak.
- **Uztailak 15:** Bergara. Junior maila.
- **Uztailak 16:** Elgeta. Amateurrak.
- **Irailak 17:** Bergara. 23 urtetik azpikoak.
- **Irailak 23:** Oñati. 23 urtetik azpikoak.
- **Irailak 24:** Aretxabaleta. Juniorrak.



**KERLEKU**  
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ELKARTEA

LAU TALDETAN 36 TXIRRINDULARI BILDU DITU DORLETAKO AMAK

# Kadete mailako mendi bizikleta taldea da aurtengo nobedadea



## DORLETAKO AMA

- SORRERA: 1975
- TALDE KOPURUA: 4
- AURREKONTUA: 24.000 euro
- TELEFONO: 943 77 03 95 (Jon Urrutia)

Mireia Bikúña

Ilusio handiarekin hasi dute denboraldi berria Aretxabaletako Dorletako Ama elkarteko txirrindulariek. Esperantza iaz egindako lana hobetzeko eta ilusioa, talde berri bat errepidean jarri dutelako.

Ez da samurra garai hauetan txirrindulari talde berriak sortu eta abian jartzea. Baina Dorletako Ama elkartek mendi bizikletako talde berria osatu du. Kadete mailako zazpi mutilek osatzen dute taldea. Euskadiko Openeko zirkuituan parte hartuko dute. Talde berria bada ere, esperientzia duen taldea dela esan daiteke. Beñat Kortabarria eta hainbat urtean trialsin probetan parte hartu duen Markel Uriarte dira aipatu daitezkeen izene-

tako batzuk. Kadete mailan ez daukate errepiderako talderik, eta, hain zuen ere, Mikel Iglesias Aloñarekin arituko da aurtuen.

Bestalde, senior mailan, Ederra mendi bizikletako taldea babestuko dute Dorletako Amakoek. Talde horrek ere Euskadiko Openeko probetan parte hartuko du. Sei lagunek osatzen dute mendi bizikletako taldea.

**Kadete mailako mendi bizikleta taldeak Euskadiko Openeko zirkuituan parte hartuko du aurtuen**

## GAZTEAK ETA INFANTILAK

Esperientzia txikiko taldea osatu dute gazte mailan. Izen ere, taldean dauden 11 txirrindulariak gehienak lehenengo urtekoak dira. Antxon Anduaga da taldeko liderra. Txirrindulari arrasatearrak iaz garaipena eskuratu zuen Lazkaon, Gipuzkoako Itzulia 5. postuan amaitu zuen eta parte hartu zuen lasterketa gehie-

netan lehenengo hamar postuetan iritsi zen helmugara. Taldeko nobedadeetako bat Jorge Merino oñatiarra dugu. Ilusiorik ez zaie falta txirrindulari gazte horiei.

## GAZTEXOENDAKO BI LASTERKETA

Dorletako Ama elkartek infantil eta alebinendako bi lasterketa antolatuko ditu. Gaztexoendako lehen proba apirilaren 22an jokatuko da, Aretxabaletan. Bi maila horietako lasterketak zirkuitu itxietan jokatzen dira. Infantil mailako taldean bederatzi txirrindulari daude eta alebin mailako taldean berriz, bi.

Dorletako Amako arduradunek, beti bezala, gogoz ekin diote denboraldi berriari.



## GAZTEAK

**Ezkerretik eskumara, zutik:** Jon Urrutia entrenatzailea, Iker Iborra, Antxon Anduaga, Julen Galiano, Alberto Lopez, Jorge Merino eta Jose Mari Gallastegi.  
**Makurtuta:** Aitor Otxoa, Markel Diego, Aitor Urrutia, Aitor Etxebarria eta Iñigo Agirre.



## INFANTIL ETA ALEBINAK

**Zutik, ezkerretik eskumara:** Raul Blazquez entrenatzailea, Danel Mazmela, Martin Berribititia, Markel Juaristi, Jon Etxeberria, Lorea Mendizabal, Aitziber Azaldegia eta Endika Martin entrenatzailea. **Makurtuta:** Rafael Cordero, Jon Ander Guerrero, Iker Agirre, Ander Gallardo eta Asier Urrotz (azken biak alebinak).



## MENDIKO SENIORRAK

**Ezkerretik eskumara:** Igor Lazcano, Igor Baz, Zigor Urain, Felix Zugasti, Iñigo Roldan eta Oskar Onkala.



## MENDIKO KADETEAK

**Ezkerretik eskumara:** Iñigo Altzola, Ibai Agirreurreta, Beñat Kortabarria, Markel Arriolabengoa, Iñaki Viejo, Joseba Iglesias eta Markel Uriarte. Lur Uribetxebarria falta da argazkian.

## LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

27 TXIRRINDULARI DENBORALDIARI AURRE EGITEKO

# Lokatzak lanean jarraitu nahi du, 30 urte igaro eta gero

*Alebin, infantil,  
kadete eta gazte  
mailetako  
txirrindulariak  
bildu ditu  
Lokatzak*

Mireia Bikuña

30 urte beteko dira aurten Bergarako Lokatza txirrindulari taldea sortu zela. 1976an kluba sortu zuten ilusio berarekin ekin diote txirrindulari denboraldia. Azkeneko urteotan bezala, txirrindulari kopuruak nabarmen behera egin du eta hori antzeman egiten da Lokatzako taldeetan. 27 txirrindulariren lizenziak egin dira. Txirrindulari kopuruak behera egin duen arren, haien maila ona dela azpimarratu digu Pello Garitanok, Lokatza taldeko kideak: "Batez ere gazte mailako taldearen maila nabarmenduko nuke. Bost txirrindulari bakarrik ditugu, baina kategoriakoak".

Iban Caballero Gipuzkoako selekzioarekin entrenatzen aritu da eta denboraldi ona egingo duela espero dute Lokatzakoek. Joseba Mugurutza eta Asier Pelabard kontuan hartzeko beste txirrindulariak dira.

**LOKATZA**

- SORRERA: 1976
- BAZKIDEAK: 200
- TALDE KOPURUA: 3
- AURREKONTUA: 31.600 euro
- TELEFONO: 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga)

Kadete mailako taldean, bestalde, hiru txirrindulari besterik ez dago. Horietatik bi, gainera, berriak dira maila horretan. Kopuru txikia da, baina, esan bezala, txirrindularitzak ez ditu sasoi onak bizi.

**HARROBIA ZAINDU**

Kopuruari dagokionez, talderik oparoenak infantil eta alebin mailakoak dira. Bi kategoriak hartuta 19 txirrindulari bildu dituzte. Haientzako helburu nagusia txirrindularitza ezagutu eta ondo pasatzea da.

Lokatzak urtero ahalegin berezia egiten du harrobiko taldeetan parte hartzen animatzen diren txirrindulari gazte horientzako arropa eta bizikletak erosten. Harrobia zaindu beharra dagoela aipatu digu Pello Garitanok: "Harrobia mimoz zaintzen dugu, baina 15-16 urterekin nahiago dute futbola edo beste kirol bat aukeratu. Oso gutxi dira goiko mailetara iristen direnak".

Harrobiko txirrindulari horiek ez dira errepidera irteten, karrerak zirkuitu itxietan egiten baitira.

**ZAZPI LASTERKETA**

Lokatzak antolatzen duen lehen lasterketa Gorlako Igoera izango da. Martxoaren 26an jokatuko da eta 23 urtez azpiko amateurrak izango dira protagonistak. Karrera horren ondotik beste sei etorriko dira. Mendekoste saria ekainaren 4an jokatuko da eta San Martin saria irailaren 17an. Bi horiek ere amateur mailako lasterketak dira.

Maiatz, ekain eta uztailera-ko, kadete, infantil eta gazte mailetako karrerak ere iragarri dituzte.

Zazpi dira guztira Lokatzak antolatzen dituen lasterketak. Eta lerro hauen bitartez karrera horiek antolatu ahal izateko herritarren laguntza ezinbestekoak dela azpimarratu nahi dute, bidegurutzeetan egoteko edo motor-gidari lanak egiteko.

Bestalde, duela bi urteko esperimentzia bikaina ikusita, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Bergarara berri zekarrekin egiten dute amets Lokatza elkarreko kideek.

**GAZTEAK**

Ezkerretik eskumara: Iker Sanchez, Unai Markiegi, Eneko Martinez, Joseba Mugurutza, Iban Caballero eta Asier Penabad.

**KADETEAK**

Ezkerretik eskumara: Xabier Arantzeta, Unai Martinez, Xabier Martinez eta Iñigo Larrañaga (zuzendaria).

**INFANTILAK ETA ALEBINAK**

Ezkerretik eskumara: Andoni Lasa, Igor Olaño, Jon Odriozola, Asier Taboada, Iñaki Berroitia, Jon Uribe, Unai Sanchez, Jon Rivero, Gorka Etxezarreta, Ander Telleria, Unai Retolatza, Mikel Aristi, Aitor Laskurain, Anartz Gartzia eta Pello Bilbo.

ALOÑA MENDI

INFANTIL, ALEBIN ETA KADETE MAILETAKO TXIRRINDULARIAK TALDEAN

# Harrobiarekin lan bikaina egiten jarraitzeko betiko ilusioa dago



## ALOÑA MENDI

- SORRERA: 1975
- BAZKIDEAK: 300
- TALDE KOPURUA: 2
- AURREKONTUA: 20.000 euro
- TELEFONO: 943 78 15 79 (Pedro Irurtzun)

*Zapatuan egin zuten taldeen aurkezpena, Torreauzon. Bi talde izango dituzte aurtzen, kadete mailakoa eta gaztetxoena*

Edu Mendibil

Txirrindularien harrobi bikaina izan da Aloña Mendi taldea. Han aritu dira Mikel Lizarralde, Jon Odriozola, Enrique Alonso arrasatearra, gaur egun Euskaltelen dabilen Markel Irizar eta profesional mailara ez iritsi arren pedalkada ugari emandako bes-

te gaztetxo asko. Amateur mailara jauzia egin duen azkena Joseba Itziar izan da: Azpiru Inmobiliaria taldearekin arituko da aurtengo denboraldian.

Aloña Mendik zapatuan egin zuen taldeen aurkezpena, Torreauzon. Aurtengo denboraldiari aurre egiteko bi talde izango dituzte, kadete mailakoa eta gaztetxoena, infantil eta alebin mailako txirrindulariekin osatua. Kadete mailako taldea hamaika

lagunek osatuko dute eta Garikoitz Baños eta Mikel Lizarralde izango dira zuzendariak. Dagoeneko hiru lasterketa izan dituzte. Aurreneko bietan Xabier Arnaiz aurrealdean ibili zen: Ibaetan laugarren eta Beasainen hirugarren tokian sailkatu zen. Kadete mailan bigarren urtea egingo du auren Arnaizek eta iaz ere txirrindulari bikaina zetorrela erakutsi zuen, Irurako lasterketa irabazita. Taldekideen

laguntzarik ez zaio faltako, eta emaitzak onak espero ditzakegu kadete mailako taldearenagatik.

## GAZTEXOEN ILUSIOA

Infantil eta alebin mailetan dozena bat lagun ibiliko dira, Andoni Urteagaren eta Josu Egañaren aginduetara. Talde polita osatu dute; gaztexoen ilusioak ez dauka nekerik eta zaletasunari eus-tea da helburu nagusia.

Sei lagun ari dira zuzendaritzan eta Pedro Irurtzunek jarraitzen du presidente. Aurrera egin ahal izateko babesleen eta taldearen inguruan lanean dabiltsuenen garrantzia azpimarratzen du. Aloña Mendik hainbat proba antolatuko ditu denboraldian: apirilaren 8an infantil eta alebin mailakoa, ondoren Arantzazuko igoera, kadete mailakoa maiztaren 10ean eta San Miguel jaiekakoak, irailean.




KADETE MAILA

**Ezkerretik eskumara:** Garikoitz Baños (zuzendaria), Mikel Iglesias, Julen Elkoroiribe, Oier Olalde, Iñaki Igartua, Xabier Arnaiz, Xabir Mugarza, Iñaki Madinabeitia, Julen Arkauz, Andoni Urrutia, Ander Altube, Unai Barrena eta Mikel Lizarralde (zuzendaria).



INFANTIL ETA ALEBIN MAILA

**Ezkerretik eskumara:** Andoni Urteaga (zuzendaria), Aitor Umerez, Aritz Anduaga, Iker Novoa, Iker Mugartza, Gorka Egaña, Iker Arkauz, Jon Arkauz, Unai Arabaolaza, Iñaki Mugartza, Asier Muñoz, Mikel Fernandez, Iker Laberdi eta Josu Egaña (zuzendaria).



## Zure bizikleta denda

- BH bizikleta finkoak ariketa-makinak
- Txirrindularitzarako osagaiak
- Bizikletarentzako gehigarriak
- Bizikleten salmenta eta konponketa

Bizikleta markarik onenak:



ACOBIS elkarteko kidea

Arrizuri 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 41 63

# Amateur mailako tropelea



**UNAI ARANTZABAL |**  
AZPIRU INMOBILIARIA

- Bergara. 20 urte.
- Iaz TKV Logistica taldean aritua.
- Errepide lauetan hobeto moldatzan da.

**B**igarreran urtea izango du Unai Arantzabal amator mailan. "Iazko esperientzia aprobatxatu nahi dut karreraz karrera nire maila hobetzeko eta, ahal dela, gauzak egiteko". Talde gaztea daukate eta Unai izango da erreferenteetako bat, gazte mailan bikain ibili zen-eta. Maiatzean jokatuko diren bi lasterketa gogoko ditu txirrindulari bergararrak: Bidasoako Itzulia eta Gervais txapelketa. Ilusioz ekin dio denboraldiari, azken hilabeteotan gogor entrenatu ondoren. Gas-teizen dihardu ikasten.



**JOSEBA ITZIAR |**  
AZPIRU INMOBILIARIA

- Oñati. 19 urte.
- Iaz Sumofic taldean, gazte mailan, aritua.
- Debuta egingo du amateur mailan.

**S**umofic taldetik dator Joseba Itziar oñatiarra. Amator mailan lehenengo denboraldia beteko du. "Mala berria da niretza eta alde horretatik kategoria hau ondo ezagutu nahi nuke eta, posible bada, garaipenen bat lortu". Batez ere Debagoienean jokatzen diren lasterketak ditu gustuko. Etxeko artean korri-tea atsegin du. Denboraldia Soraluzen hasi zuen, baina ez zuen lasterketa amaitzerik izan. Hala ere, maila bikaina duela erakutsi du txikitatik, eta hori frogatzeko aukera izango du.



**GURUTZ LARREA |**  
AZPIRU INMOBILIARIA

- Antzuola. 18 urte.
- Iaz Sumofic taldean, gazte mailan, aritua.
- Gipuzkoako txapelduna da erlojupean.

**A**mator mailan lehenengo urtea egingo du Gurutz Larrea antzuolarra. Pozik dago. "Nire helburu nagusia ahal dudan guztia ikasi eta lasterketak amaitzea da". Denboraldiko lehen lasterketan, Soraluzen, 19. postuan iritsi zen helmugara. Iaz gazte mailako Gervais txapelketa eskuratu zuen txirrindulari antzuolarak eta aurten ere, erlojupeko ona egin nahi du maiatzaren 30ean jokatuko den lasterketan. Gorabehera handiko lasterketak atsegin ditu Gurutzek, eta ihesaldietan sartzen saiatuko dela diosku.



**ANDER NAFARRATE |**  
AZPIRU INMOBILIARIA

- Arrasate. 18 urte.
- Iaz Sumofic taldean, gazte mailan, aritua.
- Lehenengo urtea du amator mailan.

**T**xirrindulari ondo moldatzan da Ander Nafarrate arrasatearra. Hala ere, gogorra egin zaio amator mailarako saltoa: "Lasterketak gogorragoak, luzeagoak eta txirrindularien artean lehiakortasun handiagoa dago. Oso ezberdinak dira gazte eta amator mailak". Horregatik, lehenengo urte honetan bi helburu nagusi ditu: lasterketen gogortasun horri ohitzea eta maila ezagutzen joatea. Sasoi punturik onena lortu nahi du, denboraldi gogor eta luzeari aurre egin ahal izateko.

**Zure helburuak osasuntsu betetzeko**

**17.85 €-tik**

**Kirol Medikuntza Zerbitzua**

Telefonoa: 943.712.033  
Posta elektronikoa: kirolmedikuntza@athlon.es

**ATHLON**

**ARRASATEKO UDALA**  
ARRASATEKO UDALA  
AUKEA  
Kirol Erakundea

AMATEUR MAILAKOAK

# n ibarreko protagonistak

## Esandakoak

"laz hartutako esperientzia aprobetxatu nahi dut aurten"

UNAI ARANTZABAL | AZPIRU INMOBILIARIA

"Gauza handia litzateke lehen urtean garaipenen bat lortzea"

JOSEBA ITZIAR | AZPIRU INMOBILIARIA

"Ahal dudan guztia ikasi eta lasterketak amaitzea da nire helburua"

GURUTZ LARREA | AZPIRU INMOBILIARIA

"Gazte mailan baino lasterketa askoz gogorragoak ditugu"

ANDER NAFARRATE | AZPIRU INMOBILIARIA

"Gipuzkoako Txapelketan, 23 urtetik azpikoetan podiuma egitea da nire helburua"

KEPA VARELA | BIDELAN KIROLGI

"Badakit oso zaila dela, baina lasterketaren bat irabaztea da nire helburua"

EDDY PEREZ | AZPIRU INMOBILIARIA

"Tropelean borroka handia izango da eta aurrean ibiltzeko ahaleginak egingo ditut"

XABIER ARANGUREN | BAQUE



EDDY PEREZ |  
AZPIRU INMOBILIARIA

D enboraldi hasierako lasterketetan zorte handirik izan ez duen arren, ilusioz beterik dago Eddy Perez. Lehengo urtean hartutako esperientzia baliagarria izango zai ouren. Iaz 4.positu bat izan zen lortutako emaitzarik oneña, Turtziozko lasterketan. Aurtengo denboraldian lasterketaren bat irabaztea da haren helburua, amateur mailan lehiakortasun izugarria dagoela aitortzen duen arren. Abenduan hasi zen entrenatzen eta udaberriko lasterketa garrantzitsuenetarako sasoi betean egotea espero du.



KEPA VARELA |  
BIDELAN KIROLGI

• Arrasate. 19 urte.  
• Iaz TKV Logistica taldean aritu zen.  
• Bigarren urtea du amateur mailan.



XABIER ARANGUREN |  
BAQUE

• Elgeta. 24 urte.  
• Sumofic taldean aritua.  
• Seigarren urtea du amateur mailan.

D ebabarrena eta TKV taldeetan jar-dun du aurretik eta aurten Bidelan Kirolgia taldean arituko da. Lehen-biziko lasterketetan sentsazio onak izan ditu, eta, horrez gain, Iker Aramendia taldeidea lider jarri da Euskaldun Trofeoan. "Aldapan gora eta erlojuz kontra moldatzen naiz ondoen; iaz, erlojuz kontrako Gipuzkoako Txapelketan 4.a izan nintzen 23 urtetik azpikoetan, eta aurten podiuma egitea da helburua". Martxoaren 26ko Gorlako Igoeran ere aurrean ibili nahi du, ondo ezagutzen duen igoera da-eta.

D ebabarrena taldean ibili ondoren, Baque taldean bigarren denboraldia du Xabierrek aurtengoa. 23 urtekik azpikoetan mailan munduko txapeldunorde izandako Francisco Gutierrez da taldeko liderra. Ruben Gorospek eta Jon Zengotitabengoa zuzentzen dute Baque taldea. Aranguren gustura ari da bertan. Badaki denboraldia luzea eta gogorra izango dela, eta fin ari da entrenatzen; aza-roa ezkerro ia 6.000 kilometro egin ditu. "Ea aurrean ibiltzerik dauakun. Garaipen bat lortzea mundiala izango litzateke...".



\* Txirrindularientzako osagarri guztiak

caravanas

- Erremolke salmenta
- Bizikleta konponketa eta salmenta



HASI DUTE DENBORALDIA

# Ibarreko profesionalak itxaropentsu hasi berri den denboraldiaren aurrean

*Jon Odriozolak, Markel Irizarrek eta Ivan Velascok hasi berri duten denboraldiaren gainean egin digute berba*

Xabier Urtzelai

Debagoienean dagoeneko bi ziklista daude profesional mailan: Markel Irizarrek (Euskaltel) hirugarren urtea du profesionalaletan, eta bide bera hasi du Ivan Velasco arrasatearrak (Orbea). Eurekin batera, txirrindularitzan bete-betean dabilen hirugarren protagonista dugu Jon Odriozola, joan den urtetik hona, baina, zuzendari lanetan (Orbea). Hiru lagun horiek, nork bere ikuspuntutik, denboraldiaren gainean egin digute berba.

**IRIZARREK USTEKABEA**

Oñatiko txirrindulariak ez du urtea gura moduan hasi. Joan den domekan, Markelek ezin izan zuen Paris-Niza lasterketa garrantzitsua amaitu, bizikletatik erori eta erredurak egin zituelako gorputzko hainbat ataletan: "Pena handia hartu dut, inoiz baino indartsuago ikusi dut-eta neurre burua. Samuel Sanchezendako lan egiteko asmoz joan nintzen hara, baina indartsu nengoela ikusita, zerbait gehiago egin neza-keen". Erorikoan ez zuen ezer hautsi, eta berri ona da hori. Erredurak osatuta, Markel goren-ean itzuli ahal izango da apiri-



Jon Odriozola 15 txirrindulari ditu Orbea taldean bere aginduetara.

GOIENKARIA

lean dituen klasikoetarako. Egu-tegian, baina, Italiako Giroa du gorriz markatuta.

**IVAN, VALENTZIAN ONDO**

Arrasateko txirrindulariak Valentziako itzulian egin du debuta, eta surrealdean ibili da, kikildu barik: "Berandu egin dut

jauzi profesionalara, dagoeneko ez naiz mutil koskorra (25 urte), eta akaso, horregatik ibili naiz txukun Valentzian".

Aurtengo helburuen gainean egin digu berba Ivanek: "Haste-ko, Orbearen izena aurrealdean ikus dezatela gura dugu, eta Orbeako arduradunei neure

fitxaketarekin asmatu egin dute-la erakustea. Horrekin batera, Euskal Bizikletan ibili gura dut ondo. Esango nuke hori dela urteko proba garrantzitsuene-takoa; etapa bat Gatzagan amaitzen denez, horrek motibatu egiten nau; polita izango da etxe-an korritzea".

**Esandakoak**

"Ez naiz mutil koskorra, eta akaso, horregatik egin dut debut ona Valentzian"

IVAN VELASCO |  
ORBEA

"Paris-Niza lasterketan oso indartsu ikusi dut neure burua; pena da erori izana"

MARKEL IRIZAR |  
EUSKALTEL

"Aurtengoa urte erabakigarria izango da, ziklismoan dena dago-eta airean"

JON ODRIOZOLA |  
ORBEAKO ZUZENDARIA

**ODRIOZOLA GUSTURA**

Jon Odriozola pozik dago talde-ak Valentzian egin zuen lanarekin: "Hala ere, egia da azken egunean haserretu ere egin nintze-la, haizearen eraginez galdua ibili ginen-eta, aurrealdeari eutsi ezinda; baina txirrindulari gazteak ditugu, eta hori ere normala da. Azken batean, horretarako gaude gu, horrelakoetatik irakasteko, esperientzia horrekin asko ikasiko dugu-eta".

Ivan hemengo lasterketak prestatzeko geratuko bada ere, taldeak Normandian du hurrengo hitzordua: "Irailean ere itzu-liko gara Normandiara, Etorkizuneko Tourrera. Euskal Bizikletarekin batera, hori izango da proba garrantzitsuenetakoa". Zuzendari lanaren gainean ere egin digu berba Jonek: "Joan den urtean izan nuen bizikletan jarraitzeko aukera, baina erronka berriari heldu nion, eta oso gustura nabil. Beste talde batzuean lana banatuago egoten da, baina Orbean ardura handia daukat, eta ziklistak ondo dabiltzala ikusterakoan oso pozgarria izaten da. Aurtengo urteari dagokionez, urte erabakigarria izango da, guztiondako, txirrindularitzan dena dago-eta airean".



Markel Irizarrek ilusio handia dauka denboraldi berrirako.



Besteak beste, Errioxako Itzulia prestatzen dabil Ivan Velasco.

GOIENKARIA

XABIER URTZELAI



**LIZARRALDE**  
**KIROLAK**

## **UDABERRIRAKO ESKAINTZA BEREZIAK** Aprobetxa ezazu, informa zaitez.



Betaurrekoak



Errepide-bizikletako zapatilak



Umeentzako bizikletak




Spinning aparatua



Mendi-bizikletako zapatilak



MTB Bizikletak



**Errepiderako bizikleta, arropa eta kaskoak**

ARRASATE  
Foruen plaza 1-2 (San Andres)  
943 79 91 47

OÑATI  
Olakua 16  
943 78 29 86

Athlon kooperatibako eta Arrasateko Musakola kirodegiko medikua da Alberto Garai arrasatearra. Horrez gain, azken urteotan, txirrindularitza profesionalean

aritu da lanean Alberto. Lehenengo Once-Eroskin ibili zen eta gero Liberty Seguros taldean. Azken talde horretatik kanpo geratu zen 2005eko ekainean, bi

txirrindularik gehiegizko hematokrito tasa eman eta gero. Txirrindularitzaz eta kirol medikuntzaz jardun dugu Albertorekin. Kirol osasuna edukitzeko arma dela esan digu.

**ALBERTO GARAI | ATHLON KOOPERATIBAKO MEDIKUA**

# “Osasuna edukitzeko, hobetzeko eta lortzeko arma da kirola”

Arantzazu Ezkibel

**Txirrindularitzaz gain beste kirol profesionalen batean ibilia zara?**

Bai, beste kirol batzuetan ere ibili gara. Saskibaloian, esaterako, ibilia nintzen, baina talde hura ez zen profesionala. Profesional bezala, arraunean ibili gara, Trintxerpen.

**Ezberdintasun handia dago txirrindulariak prestaturako edo arraunlariak prestatzeko orduan?**

Bai, oso ezberdina da. Planiifikazio ezberdina eskatzen du kirol bakoiak. Txirrindularitza denboraldia eta arraun denboraldia garai berean dira, horretan antza dute, baina eguneroko eginbeharra ezberdinak dira.

Txirrindulari batek 6-7 ordu entrenatzen du egunean, jaiegun edo lanegun izan. Arraunean ordu gutxiago sartzen dituzte. Lehiaketa ere desberdina da: arraunlariak aste bukaeran izaten dituzte probak baina txirrindulariek egunero. Azken finean, kirola bera modu ezberdinean antolatuta dago.

**Zein da medikuaren lana txirrindulari talde batean?**

Gure lanaren oinarria gai-xotasunak saihestea da. Txirrindulari batek pisua asko kontrolatu behar du, limitean egoten da. Beraz, edozein gaixotasunek, katarro txiki batek esaterako, lau hilabetetako lana zaputz dezake. Anemiak eta gainkargak saihestea ere oso garrantzitsua da gure lanean.

Janaria, pisua, tentsioa eta bihotz taupadak kontrolatzea da gure lana.

**Itzuli handi batean zer jaten dute txirrindulariek eta zer egiten dute indarrak berreskuratzeko?**

Normal jaten dute, baina kantitate handietan. Guk baino gehiago jaten dute eta portzentaje desberdinat. Hidratoak (pasta) %70 hartzen dute, koipea %15 eta proteinak ere %15. Elikadura hori zaindu behar dugu karrean bertan, aurretik eta ondoren. Etapa bukatzean, adibidez, hidrato mordoa hartu behar dute. Txirrindulari batek lehian ari dela bost mila edo sei mila kaloria jaten ditu, eta, hala ere, itzuli amaiaran pisua galtzen du.

**Dopin arazoak direla-eta, zer-nolako irudia dauka txirrindularitzak? Eta beste kiroletan zein da egoera?**

Txirrindularitzan goraipatu egiten da guztia, eta errealtitatea

ez da horrenbesterako. Txirrindulari batek urtero 30 kontrol pasatu ahal ditu, eta futbolari batek zenbat? Agian bat? Aldea hor dago. Kirolari berari ematen zaion tratamendua desberdina da. Prentsak ere badu bere errua; futbolari batek zerbaite egin badu, “mutil koitadua”, pentsatzen dugu, baina txirrindularia bada zerbaite egin duena, “zerbaite egingo zuen”, esaten dugu. Uste dut ez garela justuak, txirrindulariak errrudun jotzen ditugu aldez aurretik.

**Baina jendeak uste du hiru itzuli handietan ondo dabilen txirrindulariak makarroiak jateaz gain zerbaite gehiago beharko duela.**

Zer da ondo ibiltzea? Tropearan txirrindulari oso onak daude, gero sailkapen nagusian ez direnak agertzen. Haiek hasierako 120 kilometroak taldeari laguntzen aritzen dira eta gero atzean geratzen dira. Sailkapenari begiratu eta 30 minutura daude, baina besteak goian egoteko zeinek egin du lan? Nork bere betebeharra dauka eta hori taldean onartu egiten da. Beraz, hiruretan ondo ibiltzea zer da? Iaz nor geratu zen 5. Espainiako Itzulian edo Tourrean? Inor ez da gogoratzen, eta 5. geratzea oso marka ona da. Beti irabazlearekin gogoratzen gara, eta ez da justua, egiten den lan guztiagatik.

**Zergatik da hain berezia Tourra?**


Tourra munduko lasterketa da. Beste edozein itzulitan, Espainiakoan, esaterako, 3-4 telebista kate daude, karrera aurretik bost minutuko publizitate karabana pasatzen da. Tourrean, aldiz, 50 telebista kate daude, 200 kazetari inguru... Dena da gehiegizkoa. Bai antolaketa aldetik eta bai karrera aldetik da desberdina. Horregatik, talde guztiak gura dute Tourrean parte hartu.

**Zein da zuri gehien gustatzen zai-zun lasterketa?**

Niri gehien Munduko Txapelketako lasterketak gustatzen zaizkit. Klasikoak politak izaten dira; Donostiakoa, adibidez. Egun batekoak dira, baina oso politak dira. Estrategia ezberdinak erabili behar dira egun bateko karrean edo hiru asteko karrera batean. Bereziak izaten dira.

**Ze gaitasun behar du txirrindulari batek txapeldun izateko?**

Duda barik, sakrifizioa. Egia da berezko gaitasuna izan behar duela, zerbaite eduki behar du, bizikleta gainean jartzen denean ikusten dena. Baino gerora sakri-



Albertok esan digunez, jendea azterketa egitera joateko entrenatu egiten da. Haren ustez, hori astakeria da.

ARANTZAZU EZKIBEL

fizioa beharrezkoa da. 17-18 urte-rekin, amateur mailan hasten direnetik, lagunak, parrandak... ahaztu egiten dituzte. Egun guztia bizikleta gainean egin eta gero etxera nekatuta heltzen dira. Desiratzen egoten dira denboraldia bukatu eta lagunekin egoteko, emaztearekin egoteko... Azken finean, gauza normalak egiteko. Txirrindulariarena bizi-modu gogorra da.

**Txirrindulari asko ezagutu dituzu. Nor da gehien harritu zaituen gaitasun aldetik?**

Armstrong-ek ahalmen bikainak ditu. Euskaldunen artean, Abraham Olano aipatuko nuke. Sakrifizioa, lana eta entrenatzea zen Olanoren leloa. Joseba Beloki ere aipatzeko da; dena ematen du, lasterketa beti leher eginda bukatzen du. Beste bat aipatzekotan, pertsona bezala, txirrindulari bezala eta taldeki de bezala Igor Gonzalez de Galdeano da.

**Gurera etorriaz, jendea ondo presatzen da kirola egiteko?**

Kirola egiteko kultura apur bat igo da, baina oraindik lan handia daukagu egiteko. Medikuaren gara jendea etortzen da gero eta gehiago, baina kultura handiagoa sortu behar dugu. Asko tan pentsatzen dugu kirola egiteko txandala erosi, oinetakoak erosi eta nahikoa dela. Eskerrak gorputza azkarra dela eta mugak jartzen dituela...

Askotan, jendea bere ezau-gariak zeintzuk diren jakin barik entrenatzen da. Horrela, kirola txarrerako erabil daiteke onerako erabili beharrean. Eta kirola, nire ustez, osasuna lor-tzeko, edukitzeko eta hobetzeko erabili behar den arma bat da. Kirola garrantzitsua da neurriz erabiliz gero, eta hor guk lagundu egiten dugu. Kultura hori sortzen ari gara, baina gehiago egin behar dugu.

**Moda-modan dauden mendi lasterketak egiteko zela entrenatu behar da? Ez al zaizu iruditzen gehiegikeria handia egiten dela?**

Mendi lasterketak oso gogorrak dira, osasuna ere limitean jartzen da. Gu lasterketa horietan parte hartzen dutenei laguntzen ari gara; entrenamenduak ondo egin, ohitura txarrak saihes-tu, zela edan eta zela jan. Hala ere, gure lana ez da entrenamenduak jartzea. Guk kirolariaren ezau-gari guztiak atera egiten ditugu. Osasun aldetik nola dagoen baloratzen dugu; bihotza, tensioa eta elektroerreposoa. Bai-ta ere plantilla beharra duen iku-si, giharrik nola dituen, etab.

Maratoi arruntak urtean bi edo hiru egiten dira, baina mendikoak urtean 6-8, eta hor dabilen jendea ia gehienetara aurkezen da. Oraindik ez dakiguna da kirolari horiek, 25 urte barru, ze arazo izango dituzten. Ez dut uste arazorik izango dutenik, baina oraindik ez dakigu, mendi lasterketak berriak dira-eta. Gehie-gikeriak ote diren, baliteke. Gaur egun guztia limitera eramatzen da, eta kirola gizartearen isla beste-rik ez da. Guk ez dugu esango kirol horiek ez direnik osasun-tsuak, baina onura handien ematen dutenak ez dira. Osasuna lor-



A.E

tzeko, kirola frekuentzia eta intentsitate jakinarekin egin behar da. Lehiaketa sartzen denean, iraupena, intentsitatea eta helburua aldatu egiten dira, baina hori kirol guztieta gertatzen da.

**Kirolariaren lana aztertzerakoan, medikuaren lana baloratzen dela uste duzu?**

Ez, askotan jakin ere ez da egiten eta nik uste dut hori ona dela. Gaur egun kirolari profesional

guztiekin daukate medikua, baina inork ez dakigu nor den. Bigarren planoan geratzen gara, baina nik uste dut garrantzitsua kirolaria bera dela eta, era berean, hark lortzen duena.

**Baina ez duzu uste onerako ez dela baloratzen eta txarrerako, aldiz, bai?**

Bai, hori bai.

**Zure kasuan, Liberty Seguros taldekin kanpo geratu zinen hemantokrito arazo batzuengatik. Ez**

**duzu uste taldearen irudia garbitzeko modu bat izan zela mediku kanporatzea?**

Ez. Nire iritziz, erabakia euren buruhaustea izan zen. Isidro Nozal eta Nuno Ribeiroren kasuak ez ziren positibo kasuak izan. Taldearen arauak jarraitu izan bagenitu, txirrindulariak taldekin kanpo geratuko ziren. Eta erabaki zuten txirrindulariak bota beharrean medikua bota-tea. Orduan, prentsaren aurre-

an eta gizartearen aurrean ondo geratu ziren.

Gerora ere izan dute positibo arazoa, eta kasu horretan txirrindularia bota dute, eta ez medikua. Beraz, ez zait justua iruditzen.

**Garai hartan Manolo Saiz zen taldeko zuzendaria. Haren aldetik babesik jaso duzu ?**

Ez, hura izan zen taldekin kanporatu ninduena. Nik, sartu aurretik, banekien horrelako zer-bait gerta zitekeela. Talde serio batean nengoela pentsatu nuen, eta ez zela horrelakorik gertatuko, baina gertatu egin zen.

**Denboraldi berriari begira, Euskal tel nola ikusten duzu?**

Aruten ondo hasi dira. Paris-Nizan talde espiritua berresku-ratu egin dutela ikusi da. Denboraldi polita egingo dutela uste dut. Agian ez dute karrera askorik irabaziko, baina taldea batuta dagoela ikusi da.

**Lance Armstrongen ordezkorik izango da?**

Oraingo, ez dut uste sei Tour irabaziko duen inor dagoenik. Aurtengoa irabazteko faboritoak badaude: Basso, Ullrich, Vino-kourov... izan daitezke irabazleak.

**"Txirrindulari talde batean gure lana, printzipioz, gaixotasunak saihestea da"**

**"Itzulietan, egunero 6 mila kaloria jan arren, txirrindulariak pisua galtzen du"**

**"Txirrindulari batek urtean 30 kontrol pasatzen ditu. Futbolari batek zenbat?"**

**"Mendi lasterketak oso gogorrak dira, osasuna bera ere limitean jartzen da kirol honetan"**

**"Medikuak bigarren planoan geratzen gara; garrantzitsua kirolaria da"**


**"Gaur egun guztia limitera eramatzen da, baita kirolean ere; gizartearen islasa da"**

**Hemen**  
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Intxaurtxueta 16 behe  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Faxa: 943 71 30 58



**Hirusta**  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABAleta

**IRIARTE**

Umeen denda • Helduen lentzeria

Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABAleta



**TOKI**  
**ALAI**  
TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

# Eskola kirola

LEINTZ IBARRA

## "Urduritasunak urduritasun, gustura jarduten dugu kirolean"

*Leintz ibarreko gaztetxoei  
egin genien bisita zapatu  
goizeko jardunaldian*

*Almeneko kirolegian  
mini-eskubaloia eta kanpoan  
futbola zegoen ikusgai*

*Kirolegi barruan  
mini-eskubaloian zebiltzan  
neskekin egon ginen*

## GEAXI EZPELETA

Momentu batean ez bada bestean, urduritasuna sentitzen dute la aitortu ziguten Leintz ibarreko neskek. "Aurkarien arabera gure urduritasuna areagotu egiten da", izan zen erantzun orokorra. Aurkariak maila oneko jokalariak direla pentsatzeak kiroak dantzan jartzen dizkie gaztetxoei. Edozelan ere, oso ondo pasatzen dutela eta garrantzi tsuena hori dela ere esan ziguten. Kirolari zintzoak ditugu, horren bestez, gaztetxoak.

Gurasoak harmailetan, entrenazaleak aulkikitz aholkuak ematen eta neska-mutikoak zelaian ahal bezain ondoen jokatzen aurkitu genituen Almeneko kirolegian. Irabazteko grinak kiroak dantzan jartzea ez da harritzeko, denek nahi dute eta irabazi. Hala ere, galtzaileen aurregietan ez zen tristura handirik nabaritzen; izan ere, igarri-igarrakoa da gaztetxoentzat garantzitsuena ondo pasatzea dela.

**PROTAGONISTAK: FUTBOLA  
ETA MINI-ESKUBALOIA**

Almenera hurbildu eta kirolegian mini-eskubaloian zebiltzan bitartean kanpoko zelaietan futbol partiduak izan ziren ikusgai.

Beraz, neska zein mutilez osatutako taldeek jokatutako partiduak egon ziren bertaratutako en gozagarri goiz osoan zehar.



GEAXI EZPELETA

**Gazteluondo 5G.** Lide, Maitane, Miren, Ane, Amaia, Maria, Maialen, Nerea eta Maddi.



GEAXI EZPELETA

**Kurtzeberri.** Itsaso, Uxue, Jone, Haizea, Nerea eta Janirek jokatu zuten zapatu goizeko partidua.



GEAXI EZPELETA

**San Viator.** Julene, Irati, Jone, Maider, Ainhoa, Leire, Eider, Malen eta Kimey.



GEAXI EZPELETA

**Santa Teresa.** Ilenia, Nahia, Izar, Sara, June, Nerea, Leire eta Mireiak osatutako taldea.

**• GAZTETXOEK URDURITASUNAREN ZIRRARA SENTITZEN DUTE MOMENTU BATEAN EDO BESTEAN**


AMAIA ETA NEREA | GAZTELUONDO 5G

"Oso urduri egoten gara partiduetan, irabazteko irrikan egoten garelako. Gainera, batzuen kontra amorrutu handiagoarekin jokatzen dugu, eta horrek urduriago jartzen gaitu. Dena dela, gustura jarduten dugu".



LIDE ETA MIREN | GAZTELUONDO 5G

"Egia da urduri samar jartzen garela. Gainera, aurkarien arabera gure urduritasuna area agotu egiten da. Jokalari onak direnean, esaterako, okerrago jartzen gara txarrak direnean baino".



MALEN ETA JONE | SAN VIATOR

"Gu oso lasai egoten gara partidu gehienetan. Hala ere, galdu egin behar dugula pentsatzen dugunean edo galtzen ari garenean, urduritzentz gara. Hau da, galtzeko arriskua sentitzeak jartzen gaitu urduri".



NEREA | KURTZEERRI

"Apurtxo bat bai. Onak direnean, gainera, urduriago egoten gara bestela baino. Baino, urduritasunak urduritasun, gustura jarduten dugu".

ESKOLA KIROLA



JOSETXO ARANTZABAL

Asko sariatzen dira neska-mutikoak. Begira, bestela, batek baloia atera jaurti behar duenean nola dauden guzti-guztiak: haren taldekoak ea sartzen den eta kontrarioak ea lapurtzen dioten.



JOSETXO ARANTZABAL

Itxurarengatik jokalari profesionalak izatera iritsiko dira bi horiek.



JOSETXO ARANTZABAL

Aulkian geratzea egokitzen denean ere, jokaldiak adi jarraitzen dituzte.



JOSETXO ARANTZABAL

Galdu edo irabazi, aurkariari bostekoa ematen jakin egin behar da.

# KULTURA

## Aisialdia eta Zerbitzuak

- Kike Bigurik daukan bat-batekotasuna erakutsi zien arrasatearrei egubakoitzean | 32
- 'Beste bat' oihukatu zioten Bergarako Orkestra Sinfonikoari zapatuan Espaloiko entzuleek | 33

Capoeira eta  
maculele  
erakustaldia  
egubakoitzean,  
Arrasaten | 35

EUSKADI GAZTEA MAKETA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK



Berriozarko Khous taldea izan da aurtengo maketa lehiaketako irabazlea.

JOSEKO ARANTZABAL

**ROCK I KHOUS, NUKE ETA MILSHAKE, METAL BERRIAREN HIRU AURPEGI**

## Euskal talde berrien harrobiak metal erreserbez lepo jarraitzen du oraindik

*'Euskadi Gaztea'  
irratiko aurtengo  
maketa  
lehiaketako  
irabazleek jo  
zuten zapatuan  
gaztelekuau.  
Metal berriaren  
korrontean,  
proposamen  
bereziak  
aurkeztu  
zituzten guztiekin*

Jon Berezibar

Daukan oihartzunarengatik ez bada, *Euskadi Gaztea* kateko maketa lehiaketak sariak, behintzat, potoloak agindu ohi ditu. Talde askoren tranpolin izanda ere, agian aurten irabazole intendako taldeak ez daude irratiformularen ohiko entzuleen zaletasunetik gertuen. Khous, Milkshake eta Nuke izan dira aurtengo aukeratuak. Hirurek metala ardatz, talde bakotzak joera eta izaera ezberdinak aurkeztu zituen kontzertuetan. Metala euskal eszenako erregea izanda ere, ez zen erakargarri nahikoa izan kontzertuetara jendea erakartzeko. Taldeak, hala ere, ez ziren gogo faltarekin ibili eta ikustera lagun

gutxi batzuk joan baziren ere, zarata nahikoa atera zuten, nork bere aldera. Horretan gehien saiatu zirenak Khous taldekoak izan ziren; izan ere, energia nahikoa-arekin irten ziren nafarrak gaztelekuoholtzara.

### IRABAZLEEN MAILA

Maketa lehiaketan epaimahaia-ren saria eurek eramanda, diskoan ez ezik zuzenean abestiei daukaten mamia ateratzen bada-kitela erakutsi zuten Berriozarko Khous taldekoek. Metalaren azken joeren jabe, eta Ameriketako Estatu Batuetako *new metal*-aren oihartzun garbiak zekartzatela, grabatu berri duten make-tako abestiak jo zituzten. Iñaki Abeslariak, keinu eta imintzioz,

bizitasuna eman zien abestie, baina gainontzeko taldekiek ere ez ziren geldi geratu. Espazioz, behintzat, ondo aprobetxatu zuten gaztelekuoholtzara.

**Maketan bakarrik  
ez, Khousekoek  
zuzenean ere soinu  
bikaina daukate**

**Milkshake ibili zen  
egur kontuetan  
gogorren, baina  
lehia bizia izan zen**

Gauak metalarekin jo eta su jarraitu zuen, beste bi taldeek egur bera edo handiagoa eman gura izan zuten-eta. Urolatik Nukeko ia hasiberriak etorri ziren. Metala bai, baina beste taldearen noizbehinkako alde melodiako alde batera utzi eta rap printzak aurkezten dituzte gipuzkoarrek, euskaraz zein ingeleset.

Milkshake ordiziarrei dago-kinez, Ipar Europako *hardcore* oldakorraren kutsua zekarten, *new metal* yankia baino gehiago. Punkaren eta metalaren artean ibilita, oso soinu freskoa aurkeztu zuten, aldaketa eta nahasketak gehiago eskaintzen dituena. Egur handien, agian, haien eman zuten: hala eta guztiz ere, ez zuten borroka erraza izan.

EUSKADI GAZTEA MAKETA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

• METALA LANTZEKO HIRU MODU EZBERDIN



**EPAIMAHAIAREN ERABAKIA.** Sari nagusia Khousekoek eraman dute aurten. Zapatuan ikusitakoak ikusita, baina, diskoa jaso daitekeena baino gehiago gordetzen dute berriozartarrek barruan. Gainezka egin zuten gazteleku oholtza, eta, jende oso gutxi erakarrita, eszenatoki gainean plantari eustea lortu zuten. Maketa lehiaketaren saria-rekin diskoa grabatu eta bideo klipa egin berri dute.



**INTENTSITATEAREKIN.** Giro tenkatuekin eta noizbehinka melodia itsaskorrekin berezitzen dute Khousekoek euren proposamena. Eurek argi daukate: egurra emateko sortu zuten taldea, eta, zalantza barik, pisu handiko gitarrekin osatzen dute musika. Iñaki abeslaria ere behar moduko *frontman*-a da, eta intentsitatearekin abestu eta bizi izan zituen zapatu gauean gazteleku jo zituzten kantak.



**ORDIZIATIK GOGOR.** Egur handien Goierriko Milkshakekoek eman zuten. *Hardcore*-ranzko joera handiena aurkeztu zuten. Besteentzako melodia eta rapeatzeko alde batera utzita, kontraste eta bizitasun handiko soinua daukate, erritmo kontuetan oso aberatsa. Beste taldeek baino latzago osatzen dute euren musika, baina guztiak, arlo musikallean, behintzat, izaera handien ere erakutsi zuten.



**NUKE.** Metala ulertzeko modua, tarte rapeatuekin egiten dute Urola ibar aldekoek. Berezitasun moduan aipatzeko da inglesaren alde ere egiten dutela euren abestietan, euskal gain, bi hizkuntzak nahastuaz. Hiru taldeek metalaren gaineko hiru ikuspegi ezberdin agertu zituzten. Euskal taldeen estilo nagusia izanda ere, musika mota bera ulertzeko modu asko dagoela frogatu zuten.



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**  
Erosten jakin

## Gustura, Kike Biguriren umore saioarekin

A.G.

Laster bereganatu zuen publikoa Kike Bigurik egubakoitzean. Arrasateko Gure Leku tabernan umore bakarrizketa egin zuen Zumarragako aktoreak. Eta denak zirkatu zituen. Tabernan zeudenak lehenengo, baina baita gaurkotasuneko pertsonaia eta gaiak ere. Barre algara ederrak eragin zituen bere pertsonalitateari buruzko googoetekin ere.

Ordu eta laurdeneko saioa egin zuen. Aulkia eta mikrofona nahikoia izan zituen 75 minutuz Gure Lekuko publikoaren arreta bereganatzeko.

Aurrez aurre izan zituen 75 lagunak, gainera, ikusle parte-hartzialeak izan ziren eta gustura egin zuten barre aktorearen bat-bateko ateraldiekin. Sarritan moztu zuten Biguriren jarduna, baita bat-bateko galderak egin ere. Baina bikain moldatu zen zumarragarra halakoetan ere. Hitz jario aparta du eta ateraldi zorrotzen bat asmatzen zuen beti, gaia edozein izanda ere. Maiatzaren 25ean izango da berriz Gure Lekun.



Kike Biguri aktorea.



MUSIKA I OÑATIKO GANBARA ABESBATZA

## Eslovenian egingo duten emanaldiaren aurrerapena egin zuen Ganbarak

*Maribor hirian jokatuko den Nazioarteko VIII. Koru Lehiaketako prestatzen dihardu Oñatiko Ganbara Abesbatzak*

Naiara Larrañaga

Duela hiru hilabete eman zuen Oñatiko Ganbara Abesbatzak jendaurreko azken kontzertua. Burgosen izan zen, *Musica en Navidad* zikloaren barruan. Ordutik hona Mariborko (Eslovenia) nazioarteko lehiaketa prestatzen aritu dira. Bada, isilean eginiko lanaren azalpen bat eman ziguten egubakoitzean Oñatiko Santa Anan.

Aldaketa nabarmenekin azaldu zen abesbatza. Gizezkoen ekarpen sendoagoa eta hutsune garrantzitsuak emakumeen artean. Abesbatzak betidanik izan duen gabeziari buelta ematea lortu duela esan genezake, nesken eta mutilen ekarpenen arteko oreka lortuta.

BI ATAL BEREIZI

Kontzertuaren lehenengo zatia kantu erlijiosoz bete zuten. Bi-

kaina izan zen hasierako *Kyrie*-a Ander Simalek pianoz lagundua. Pieza moderno eta alaia eta aspertzen ez duen horietakoak. Aipa dezagun ere, errepertoriola ekarri berrien artean, J. Gallusen *Pater Noster* bitxia, emakumeen eta gizonen ahotsen arteko elkarritzeta moduan egituratua.

**Emakumezkoen eta gizonezkoen ekarpenen arteko oreka lortu dute**

Bigarren zatian, berriz, kantu ezagunagoak egin zituzten. Behin baino gehiagotan kantatu duten arren, errepertoriotik sekula baztertu beharko ez luketen *Nunc Dimittis* melodia sentikorrarekin eman zioten hasiera, eta hainbat euskal kanturekin amaitu zuten, bisa eginda, ohi duten eran. Antzokira batu ziren 200 ikusleek gogoz txalotu zituzten koruaren interpretazio guztiak.

Maratoiarri ekin dio abesbatzak barikuko kontzertuarekin; Arrasaten izango dute hurrengoa martxoaren 24an, eta Mari-borren bukatuko dute, Nazioarteko VIII. Koru Lehiaketan.

## Lan polita eginda finalerako emaitzen zain daude kantariak

*Arrasateko bi taldeko hartu zuten parte zapatuan Euskal Kantu Txapelketako Gipuzkoako kanporaketan*

J. B.

Egindako lanarekin gustura itzuli ziren Arrasateko bi taldeak zapatuan Urretxutik. Bikote bat eta hiruko bat (txapelketako gaz-

teena) aurkeztu dira Gipuzkoako kanporaketara, eta orain, datoren astera arte itxaron beharko dute emaitzen berri izateko.

Lan polita egin zutela dio Rakel Murgiondo irakasleak, nahiz eta "mikoarekin eta jendurrean abesten oso ohitura ez egon". Maila aldetik aurten oso ona dagoela ere badio irakasleak, baina Arrasateko ordezkariek "lasai eta gustura" ibili zirela. Euskal Kantu Txapelketan, lehenengo lurraldeka jokatzen da, eta datorren astean Oiartzunen egingo den bigarren kanporake-

taren ostean jakingo dute ea Gipuzkoatik nor joango den finalera. Jonek eta Anek abestu zuten lehenengo. Bikoteak abestu zuen Lauaxetaren hitzak eta Rafa Rue-daren musika daukan *Mendigo-xaliarena*. Miren, Maialen eta Eneritzek osatutako hirukoteak Mana talde mexikarraren *Ana* abestiaren euskarazko moldaketa egin zuen. Biek hala biek txalo zaparrada jaso zuten saioa amaitzean. Giro bikaina egon zela kontatua digu Rakelak ta senide eta lagunak ere ikustera joan zitzaiak.



Ane Undagoitia eta Jone Etxebarria, Urretxuko kanporaketan.

RAKEL MURGIONDO

MUSIKA SINFONIKOA | BERGARAKO ORKESTRAK EMANALDIA EGIN ZUEN ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

# Garai guztietako musika eskaini zuen Bergarako Orkestrak Espaloian

*Aretoak hartzen zuen lehenengo kontzertu sinfonikoa zen; urtero egin nahi dute hitzordua aurrerantzean*

*Espaloiko kontzertuarekin amaitutzat ematen du Bergarako Orkestra Sinfonikoak neguko zikloa*

Larraitz Zeberio

Zapatu gaelean musika sinfonikoarekin zuten lehenengoz hitzordua Elgetako kafe antzokian. Gustura gelditu ziren emaitzarekin musikariak, publikoa zein antolatzaileak, eta baliteke aurrerantzean urteroko hitzordua bihurtzea.

Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldi atsegina egin zuen Espaloian. Eszenatoki guztia haratu zuten orkestrako 52 musikariekin. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariaren aginduetara ordubeteko saioa egin zuten. Garai eta estilo guztietako musika piezak eskaini zituzten, gainera.

## ERREPERTORIO APROPOSA

Erreperitorio aukeraketa ona eka-ri zuen zuzendariak Elgetara. Obra sinfoniko klasiko batekin eman zion kontzertuari hasiera: Franz von Suppe austriarraren *La Bella Galathea* oberturarekin, hain zuzen. Kontzertuko piezarik trinkoena izan zen, musikarien-dako zailtasun handienekoa.

Gero, publikoari ezagunagoak egin zitzazkion piezak etorri ziren, hala nola: Manuel de Fallaren *Danza Ritual del Fuego*, Carpenters talde ospetsuaren kantu bilduma bat eta Hans Zimmer soini-banden konposatzaile ezagunak *Egiptoko Printzea* filmaren-dako konposatutako *Deliver us*.



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako orkestrak amaitu du neguko zikloa. Bergarako San Pedro eguneko kontzertua izango da hurrengoa.

Gainera, Bergarako Orkestrak Elgetako ereserkia jo zuen Espaloian. Gonzalez Chirlaquek 1989an komposatutako obra.

Oso gustura zegoen publikoa Espaloian, eta egitarautik kan-poko beste pieza bat –oso ospe-tsu den Johannes Brahmsen 5.

dantza hungariarra– eta Elgetako ereserkia joarazi zien Bergarako Orkestra Sinfonikoko musikariei.



# ZIORLA AUTOAK

## FINANTZAKETA:

%2,90eko UTB (TAE),

84 hilabetera, hilean 107 euro  
ordainduta eta sarrera-kuota barik



Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

Egubakoitzean banatu zituen Debagunek, Debagoieneko euskara elkarteen elkargoak, bakarrizketen lehiaketako sariak. Bergarako Pol-Pol tabernan egin

zen finala, eta hantxe aurkeztu zituen Jon Urraza getxoztarrak hiru bakarrizketa; izan ere, hark aurkeztutako lanak iritsi ziren finalera. Kontatu digunez, lasai irten zen

jendaurrera, baina ez zuen bere bakarrizketa faboritoak irabazi. *Nire Itu maitea* lan garailea, bozka bidez aukeratu zuten ikusleek.

JON URRAZA | ANTZEZLEA

## “Lana zuk zeuk sortu behar duzu eta idaztea, ideia izanez gero, merkea eta atsegina da”

Jon Berezibar

**Saria irabazita zeneukan lehiaketan; alde horretatik lasai irten go zinen bakarrizketak egitera, ezta?**

Ez nintzen batere urduri egon eta giroa poliki-poliki berotzen joan zen, bakarrizketatik bakarrizketara *in crescendo*. Azkeneko monologoak irabazi zuen, *Nire Itu maitea* izenekoak, eta batez ere horrekin gozatu zutela uste dut. Niri, egia esateko, gehiago gustatzen zait bigarrena, baina normalean hobeto funtzionatzetan hirugarrenak, interpretazio-arengatik agian, baina ziur zer-gatik ez dakit.

**Oso ohiko ez da izaten aktoreak berak bere paperak idaztea, ala?**

Badaude aktoreak dirurik ez daukatenean gidoi bat idatzi eta saldu egiten dutenak, edo ekoizleari protagonistaren paperaren truke ematen diotenak. Hala egin zuen Stallonek *Rocky*-rekin, eta *El Jardín de la alegría*-ren protagonistak berdin egin zuen lana lortzeko.

**Hala ere, nahiago duzu antzezte tradizionalea?**

Nik antzerki *normala* ikasi nuen lau urtez. Hortik irtetean, Algortako beste neska batekin batera, Natalia Monje koreografoarekin, Organik taldea sortu nuen dantza-antzerkia egiteko. Kale-antzerki asko ere egin dugu, baina nire kabuz bakarrizketak egin ditut. Azaroan nik idatzitako lan bat estreinatu nuen.

**Beraz, idaztea ere atsegin duzu.**

Ezinbesteko da ideia izatea, baina behin hasita erosoa da oso, etxean zaude, musika jar-tzen duzu... Azkenean, lana zuk

zeuk sortu behar duzu. Idaztea, gainera merkea, da, ideia bes-terik ez duzu behar.

**Horregatik jo duzu bakarrizkete-tara, zure burua bultzatzeko?**

Bakarrizketena, aipatu beza-la, proposatu zidatetako izan zen, baina lan berria bestelakoa da. Bakarrizketa horien ildotik, zeukan akatsak zuzendu eta obra osoa egin dut, elkarriketa moduan planteatuta.

**Eta zer duzu nahiago, taberneta-ko giroa ala antzokietakoa?**

Tabernetan egotea gustatzen zait. Noski, nahiago nuke Arriagan egin 500 ikusleren aurrean, baina antzokietara oso jende gutxi etortzen da gu ikustera. Iaz Organi-kekin Barakaldon izan ginen eta 15 lagun besterik ez zen joan; bakarrik geundela zirudien. Bes-tela, kalean jarduten dugunean jende asko geratzen da eta taber-

netan bakarrizketekin eta *Bob, nor da Bob?* lan berriarekin jende gehiago gerturatzen zaigu, taberna betetzeraino. Mahoma eta mendiarena, hori egin behar da. Bakarrizketen gauza ona hori da: bakarrik egiten baduzu, zuk zeuk eramatzen duzu soinua eta beharrezko guztia eta kontrata-tzen zaituenarendako merkea da. Ondorioz, ondo kobratzen da, diru guztia nik eramatzen dudalako. Antzerki bat hamar lagunekin muntatzen baduzu, ezin duzu pro-porcionalki kobraturu.

**Bakarrizketetan, ikuslearen gan-dik hain gertu egoteak ez du erres-peturik ematen?**

Bai. Ustez barre egiteko zer-bait egin eta aurpegi serioak ikus-ten baditzu, orduan burua haus-ten hasten zara. Noiz edo noiz ger-tatu izan zait; adibidez, iaz Korrika Kulturalean, Orion. Oso jende gutxi etorri zen kultura etxera gu ikustera, eta ziurrenik hura izan zen bakarrizketa hauekin igarotako unerik gogorrena. Antzezten zabiltzala, alde batetik garuna papera egiten dabil eta aldi berean burua egoera epaitzen dabil. Esaldi bat esan eta une bere-an pentsatzen duzu: “Esaldi honek ez dio andre horri grazia putarik egingo”. Jendeak barre egiten badu, gozatu egiten duzu eta, gainera, goraka zoaz.

**Istorioak idazterakoan, zure eta gertukoen gorabeherak jasotzen dituzu?**

*Stand-up comedy* delakoan ohikoena gaurkotasuneko gai bat hartu eta horri bueltaka ibiltzea da, Buenafuentek egiten duen moduan, pertsonaia zehatzik gabe. Nik pertsonaia bat sortu eta hark bere bizenpik agertzen

**“Ikusleak hain gertu izanda, jendeak barre eginez gero gozatu egiten duzu eta, gainera, poliki-poliki goraka zoaz”**

**“Lan berria idazten nenbilela, batetik bestera neraman grabagailua, lagunen esaldiak- eta apuntatzeko”**



Segurtasun handiarekin irten zen Jon Oholtzara egubakoitzean.

ditu. Lan berria idazten nenbilela, lagun bat zer edo zer entzun eta apuntatu egiten nuen batetik bes-terra grabagailua aldean neuka-la. Pertsonaiendako esaldiak aur-kitzen nituen horrela.

**Beraz, lagunak egile-eskubideen eskean joango zaizkizu.**

Ez, ez dira konturatzen-eta! Lagun bat, adibidez, haserretu egingo zela uste nuen, baina ez zuen antzerkia ikusi, eta beste bat pertsonaia bat bere isla zela azaldu eta ez haserretzeko esku-tu nionean, konturatutu ere ez zela egin esan zidan.

## Mutil-lagunarekin ezin ulertuak, gurasoekin elkarbizitza eta bikotekidearekin gorabeherak

Nabari zitzaison Joni egubakoitzean jendaurrean antzezen zuen lehen aldia ez zela. Segurtasunarekin eta bere buruaren oso jabe, konfiantza handiarekin defendatu zituen Bergarako Pol-Pol tabernan lehiaketara aurkeztutako hiru bakarrizketak. Giroa pixkanaka joan zen berotzen eta azkeneko lanerako gutxik eutsi ahal izan zioten barreari, merezi zuen-eta.

*Apartamendua, Andra krisial-dian eta Nire Itu maitea* bakarrizketak egin zituen, eta bere faboritoa bigarrena izan bazen ere, Ituren istorioak eraman zituen bergararren botoak. Mutil-lagunarekin dituen arazoetan

oinarrizten da *Nire Itu maitea*, eta gehiengoz irabazi zuen lehiaketa. Lasai jardun zuen getxoztarrak ikusleen aurrean. Kale antzerkian trebatua, Pol-Poleko giroa ez zitzaison arrotz egin eta antzezpenak aurrera egin ahala gero eta erosoaago nabari zitzaison aktoreari. Beste bi bakarrizketek ere giza-harremanak zituzten ardatz: batek gurasoekin elkarbizitza jorratzen zuen eta *Apartamendua* izenekoak bakarrik bizi izatera doanaren komeriak jasotzen ditu. Bozketa papertxo bitartez egin zuten, eta esan daiteke hirugarren lanarekin adostasun nahikoa egin zela irabazle bat aukeratzeko orduan.



## Capoeira eta maculele erakustaldia egingo dute Brasilgo bi irakaslek

*Senzala Euskadi taldeak erakustaldia eta bi eguneko ikastaro berezia antolatu ditu capoeira gurean zabaltzeko*

Leire Kortabarria

Capoeiraren eta antzoko beste dantza baten, maculelearen, gaineko bi ekintza daude: batek, egubakoitzean, hilak 24, horien erakustaldia egingo dute Pedro Gatuno eta Instructor Julio Sanhaço irakasle brasildarrek eta Senzala Euskadi taldeko kideek, guztira 15 lagunek. Arrasateko 3.60 aretoan izango da, gauerdian, eta sarrera, doan. Gainera, bi irakasleok capoeira ikastaroa emango dute hilaren 24an eta 25an, Arrasaten eta Eskoriatzan.

Bi ekintza horiek Debagoineneko Senzala Euskadi taldeko kideek antolatu dituzte, Igor Ezpeleta eskoriatzarra

buru dutela. "Oso aberasgarria da kulturen eta ideien elkartrukea egitea", diosku. Bi ekintza horien eta Senzala Euskadiren gaineko informazioa dago [www.goiena.net/blog/capoeira](http://www.goiena.net/blog/capoeira) blogean.

### TOPAKETA DEBAGOIENEAN

Ezpeletak ibarrean capoeira irakasten dihardu azken urteotan, eta horren inguruko talde finkoa sortzea lortu du, "lan gogorra" kostoa zaiola arren; haren ustez, euskaldunoi "lotsa" kentzea kostoa egiten zaigu.

Hala ere, gero eta ikasle gehiago ditu: "Guztira 20-30 bat lagun datozen: Gatzaga, Eskoria, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara eta Antzuolako kideak daude, Eskozia bat, Italiako beste bat... Horietatik 15 bat Senzala Euskadi taldeko baziak dira". Eskoriatzan, 5-12 urtekoendako ikastaroa hasi berri dute.

Etorkizuneko beste proiektu garrantzitsua bat da Euskal Herriko I. Capoeira Topaketa. Ekainean egingo dute, eta Aretxabaleta izango da topalekuetako bat.

## Hitzorduak



### SALGAI DAUDE SOULFLY TALDEAREN KONTZERTURA JOATEKO SARRERAK |

Max Cavaleraren taldeak egubakoitzean, hilaren 24an, joko du Bergarako Jam aretoan

Datorren astebururako bi kontzertu antolatu ditu Bergarako Jam aretoak. Egubakoitzean, hilak 24, Soulfly heavy metal taldearen kontzertua izango da, 21:00etan. Max Cavaleraren taldeak bosgarren diskoa, *Dark Ages*, kaleratu zuen joan zen urrian. Brasildarrez gain, Xkrude taldeak ere joko du egun

horretan. Sarrerak salgai daude Etxagin (Bergaran) eta Lazkanon (Arrasaten).

Bestetik, zapaturako, hilak 25, Sonotones eta Arrasando Zepas taldeen emanaldia antolatu dute, GoJam aretoan. Sonotones-ek *Sin argumentos* diskoa aurkeztuko du Bergaran.

### ZINEMA I

#### • *Orgullo y prejuicio* filma emango dute Arrasaten

*Orgullo y prejuicio* filma ikus-teko aukera dago gaur, astelehena, Amaia antzokian, 20:30ean.

#### • *La memoria de los peces* filma emango dute Elgetan

Etzi, eguztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

#### • *Dicen por ahí* filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin

*Dicen por ahí* izeneko filma emango dute gaur, astelehena, Oñatiko kultura etxearen, 19:30ean.

#### • *Nadie sabe* izeneko filma emango dute Oñatin

Eguenean, hilak 23, emango dute film hori Oñatiko kultura etxearen, 20:00etan. Zineklub saioa izango da.

#### • *Euskal film laburrak* emango dituzte Arrasaten

Eguenean, hilaren 23an, emango dute filmok Amaia antzokian, 20:30ean.

### MUSIKA I

#### • *Piztiak taldeak kontzertua egingo du* Oñatin

Piztiak taldeak kontzertua akustikoa egingo du egubakoitzean, hilak 24, Oñatiko gaztelekuaren, 22:30ean. *Euriaren zain* diskoa aurkeztuko dute. 4 euro da.

#### • *Denial* taldeak *Phobia* diskoa kaleratu du

Denial death-metal melodiko taldeak *Phobia* izeneko diskoa kaleratu berri du. Arrasateko eta Aretxabaletako lagunek osatzen dute Denial.

### DEIAK I

#### • *Literatura Astea* egingo dute Kurtzebarri eskolan

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek Literatura Astea egingo dute, eta honako ekin-tzak egongo dira, besteak beste: gaur, astelehena, Maite Franko ipuin kontalariaren saioa Haur Hezkuntzakoendako; eta egunean, hilak 23, Patxi Zubizarretarekin sol-saldia eta eskolako 16. Irakurmaratoia.

#### • *Egunero hitzaldiak*

#### *Huheziko Literatur Astean*

Zazpi bekatuen gaineko hitzaldiak izango dira: *Inbidia* (gaur, astelehena, 19:00), *Sabelkeria* (bihar, martitzena, 19:00), *Han-dikeria* (etzi, eguztena, 11:30) eta *Nagikeria* (egunean, 19:00). Kirmen Uribe, Hasier Etxeberria, Unai Elorriaga eta Harraitz Canok hitz egingo dute.

### LEHIAKETAK I

#### • *Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa*

Mendekoste jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Bergaran bizi edo erroldatutako edo

zeinek parte har dezake. Derri-gorreko testua hauxe da: *Pente-koste jaiak 2006 Bergara*. Lanak Bergarako kultura etxera eraman behar dira apirilaren 28a baino lehen.

### ERAKUSKETAK I

#### • *Emakumearen Eguneko kartelak ikusteko* aukera

Emakumearen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketako lanen erakusketa dago Arrasateko Emakume Txokoan.

#### • *Bi debagoiendar gazteren artelanen erakusketa*

Iraia Artzamendi eta Ane Miren Agirre debagoiendarren erakusketa dago Arrasaten, Harresi aretoan.

#### • *Epifanio Perezzen margolan erakusketa* Elgetan

Epifanio Perezzen margolanen erakusketa ipiniko dute egunean, hilak 23, Espaloian.

#### • *Errefuxiatutako emakumeen gaineko argazkiak*

Errefuxiatutako emakumea, erbestea eta edertasuna izeneko erakusketa egongo da Eskoriatzako kultura etxearen egubakoitzera arte. Hau da ordu-tegia: 10:00-12:30 eta 16:30-20:00.

#### • *Aitor Sarasketaren margolanak Arregi denda*

Aitor Sarasketa eibartarraren lanak daude Arrasateko denda horretan apirilaren 7ra arte. Dozenaka erakusketa egin ditu Euskal Herrian eta Spainian.

## Arrantzaren gaineko argazki lehiaketa antolatu dute

Arrantzaren gaineko argazki lehiaketan parte hartzeko aukera dago. Oñatiko Alzu arrantzaren dendak eta Suministros Eviak antolatu dute. Maiatzaren 20ra bitartean dago parte hartzeko aukera, bi modutan: argazkiak [iarrese@hotmail.com](mailto:iarrese@hotmail.com) helbidera bidaltzea, edo dendara bertara eramatea (Arantzazuko Ama, 2). Gura beste argazki bidal daitezke.

Irabazleari arrantzarako materiala emango diote, eta argazkiak Alzu denden erakutsiko dituzte sarketa bukatu eta gero.

## Pilar Antsoategi arrasatearraren margolan erakusketa Bergaran

Pilar Antsoategi margolari arrasatearrak 18 lan ipini ditu erakusketa Bergaran. Nahikari tabernan dauka erakusketa, eta martxo bukaerara arte dago berau bisitatzeko aukera. Loreen margolanak dira; teknika aldetik, akuarelak.

Antsoategik txikitistik margotzen du; edozelan ere, bere kabuz eta Abdon Juaristi eta Luis Laskurain margolariekin hobetu du bere estiloa. Arrasate Margo Taldeko kide da, eta hainbat taldeko erakusketa partea hartu izan du.

## Eskaladaren inguruko argazkiak Bereziarturen eta Otegiren eskutik

Josune Bereziartu eta Rikardo Otegi eskalatzaleek *Hatz puntak* argazki erakusketa antolatu dute, eta horko irudi ikusgarriez gozatzeko aukera dago martxo bukaerara arte Oñatiko kultura etxearen, Aloña Mendi elkartek antolatu duen Mendi Astearen barnean.

Josune Bereziartu munduko eskalatzaleik onena kontside ratzen dute, eta, erakusketaren bidez, bere eskalada batzuen berri jasoko du bisitariak. Kirol intereseko irudiez gain, eskaladen hari-a teratakoko lekuetako argazkiak ere badaude.

**Eguraldia****Zeru hodeitsua eta zaparrada ahulak izango ditugu oraingo astean**

Gaur, astelehena, hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta han-hemenka zaparrada arinak botako ditu. Haizea ere ibilikoda. Martizenean hodeiak ugarrizten joango dira eta arratsalderako egoera aldrebestu egingo da pixka bat. Zaparradak botaiko ditu eta gauean temperaturak nabarmen egingo du behera.

Eguaztenerako, berriz, aldaketa dator, eta goizean zeru hodeitsua izango badugu ere, arratsalderako ostarteak zabalduko dira. Eguen arratsaldera arte izango dugu eguzkiaz gozatzeko aukera, arratsalderako berriz ere estaliko baita zerua. Antzerako joera izango du eguraldiak egubakoitzean ere.

**Goardiako farmaziak****ARRASATE**

<b>Astelehena, 20</b>	Corcueras	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
<b>Martitzena, 21</b>	Irizar	Erquin kalea, 11 (943 79 12 39)
<b>Eguaztena, 22</b>	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
<b>Eguena, 23</b>	Morales	Arabako etorbidea, 14 (943 79 86 65)
<b>Egubakoitza, 24</b>	Ruiz Perez	Maalako Arrabala, 31 (943 79 14 09)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 20</b>	Camacho	Oixirondo, 4 (943 76 16 87)
<b>Martitzena, 21</b>	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
<b>Eguaztena, 22</b>	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
<b>Eguena, 23</b>	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
<b>Egubakoitza, 24</b>	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)

**ONATI**

<b>Astelehena, 20</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
<b>Martitzena, 21</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
<b>Eguaztena, 22</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
<b>Eguena, 23</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
<b>Egubakoitza, 24</b>	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)

**ARETXABAleta**

<b>Astelehena, 20</b>	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Martitzena, 21</b>	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Eguaztena, 22</b>	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Eguena, 23</b>	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Egubakoitza, 24</b>	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

**Telefono jakingarriak****((112)) SOS DEIAK****OSASUNA / LARRIALDIAK**

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

**GARRAOAK**

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 08
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

**DEBAGOIENA**

Mankunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Jardun / Bergara	943 76 08 19

**Zozketak****BONOLOTOA**

Astelehena, 13  
**17 • 24 • 26 • 29 • 35 • 45**  
Osagarria: 30 | Itzulketa: 9

Martitzena, 14  
**10 • 13 • 19 • 29 • 33 • 38**  
Osagarria: 30 | Itzulketa: 2

Eguaztena, 15  
**6 • 8 • 23 • 29 • 35 • 36**  
Osagarria: 31 | Itzulketa: 7

Egubakoitza, 17  
**2 • 15 • 19 • 21 • 31 • 48**  
Osagarria: 33 | Itzulketa: 4

**ONCE**

Astelehena, 13      **10.574**  
Martitzena, 14      **39.282**  
Eguaztena, 15      **32.377**  
Eguena, 16      **72.649**  
Egubakoitza, 17      **88.504**  
Kupoitzarra (068 seriea)  
Domeka 19      **60.643**  
Kupoitzarra (004 seriea)

**Loteria Primitiboa**

Eguena, 16  
**19 • 22 • 26 • 27 • 32 • 46**  
Osagarria: 42 | Itzulketa: 4

Zapatua, 18  
**5 • 14 • 15 • 26 • 45 • 46**  
Osagarria: 42 | Itzulketa: 4

Zapatua, 18 (Saritzarra)  
**25 • 28 • 29 • 45 • 54**  
Itzulketa: 0

**Gazte zerbitzuak****BEKAK |**

- **Garapen lankidetza.** Eusko Jaurlaritza. Sei beka, Garapenerako Lankidetzaren esparruan profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzen bideratuta. Epea: apirilak 7.
- **Nekazaritza eta abeltzaintza.** Bizkaiko Foru Aldundia. Ustiategietan praktikak egin nahi dituzten nekazari eta abeltzainentzako trebakuntza bekak. Epea: apirila 28.

**IKASTAROAK |**

- **Masaje eta capoeira.** Bergarako Udala. Apirilean hasi eta ekainera arte erlaxazio masaje eta capoeira ikastaroak Bergaran. Epea: martxoak 25.
- **Administratiboa.** Tolosaldea. Goi Mailako LH Institutua. Balio askotariko administrari

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65  
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net  
**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**  
Kultura etxea. 943 77 91 57  
gizerbitzua@euskalnet.net

ikastaroa ETEentzat. INEMen dirulaguntzarekin. Epea: martxoak 20.

**LEHIAKETA |**

- **Metraje laburrak.** Caostika Elkartea. Caostika metraje laburren IV. jaialdia Bilbon. Epea: apirilak 12.

**LANA |**

- **Musika eta Dantzako Udal Eskola.** Donostiako Udala. Teklatu irakasle lanpostu bat, fagot irakasle lanpostu bat eta liburutegiko bi lagunzaile lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: martxoak 23.
- **Begiraleak.** HZ Zerbitzuak SL. Azpeitian eta Azkoitian gaztekin aisialdi programetan begirale gisa lanean aritzeko lan poltsa. Epea: martxoak 21.

**Antzuola:**

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia


**Elgeta:**

- Kioskoa

**Bergara:**

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia

## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Xabier Zuazabeitia**  
Martxoaren 13an, 6  
urte. Zorionak eta  
musu bat! Etxekoan  
partetik.

ARRASATE  
**Elene Madina**  
Martxoaren 13an,  
2 urte. Zorionak!  
Aimar, amatxo eta  
aitatxo.

ARRASATE  
**Eufemia Martin**  
Martxoaren 20an,  
70 urte. Zorionak!  
Seme-alaben  
partetik.

ARRASATE  
**Miren Txu Ojea**  
Martxoaren 21ean,  
urtebetetzea.  
Zorionak! Maite zai-  
tugunon partetik.

BERGARA  
**Danel Gantxegi**  
Martxoaren 17an,  
4 urte. Zorionak eta  
musu handi bat!  
Etxekoak.

BERGARA  
**Olatz Olañeta**  
Martxoaren 17an, 6  
urte. Zorionak eta  
musu handi bat!  
Etxekoak.

BERGARA  
**Naiara Azkarate**  
Martxoaren 20an,  
6 urte. Zorionak eta  
musu bat! Gurasoak  
eta Lierni.

BERGARA  
**Maddi Bengoa**  
Martxoaren 20an, 5  
urte. Zorionak prin-  
tesa! Manex eta  
gurasoak.

BERGARA  
**Mikel Elkoroberezibar**  
Martxoaren 23an, 8  
urte. Aitaia, amama  
eta Eli. Zorionak!

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENKO GOIENKARIaren bidez!

Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!



ARETXABAleta  
**Urko Egia**  
Martxoaren 15ean,  
urtebete. Zorionak  
eta musu handi bat.  
Etxekoak.

ARETXABAleta  
**Iker Seijo**  
Martxoaren 16an, 2  
urte. Zorionak eta  
musu handi bat.  
Etxekoak.

OÑATI  
**Mikel Bengoa**  
Martxoaren 24an.  
Zorionak eta urte  
askotarako Eneritz  
eta Malenen partez.

ANTZUOLA  
**Aintzane Irizar**  
Martxoaren 23an,  
30 urte. Urte  
askotarako!  
Lankideak.

## Jaiotakoak





**Manex Diaz de Gereñu Usandizaga**  
Eskoriatza • 2,660 Kg. Martxoak 7.  
Gurasoak: Mikel (Eskoriatza) eta Ana (Astigarraga). Argazkian: umea esna.

**Miriam Moya Ramirez**  
Arrasate • 3,850 Kg. Martxoak 12.  
Gurasoak: David (Arrasate) eta Maribel (Arrasate). Argazkian: Miriam aitaren besoetan txupetea tingo eutsita.

**Esmeraldis Maria Ventura**  
Bergara • 3,900 Kg. Martxoak 13.  
Gurasoak: Nelson (Dominikar Errepublika) eta Arelis (Dominikar Errepublika). Argazkian: Esmeraldis amaren besoetan.

**Ibai Arrizabalaga Jauregi**  
Legazpi • 3,600 Kg. Martxoak 14.  
Gurasoak: Verónica (Bergara) eta Gorka (Legazpi). Argazkian: Ibai amaren besoetan bi ordu besterik ez dituela.

**Maider Olabarria Iturbe**  
Arrasate • 3,040 Kg. Martxoak 14.  
Gurasoak: Jose Luis (Elgeta) eta Amaia (Arrasate). Argazkian: Maider jaioberria lo aita eta amaren artean.



**Manex Guridi Egaña**  
Oñati • 2,950 Kg. Martxoak 15.  
Gurasoak: Luis eta Itxaso (Oñati). Argazkian: Manex jaioberria birramama Eustakirekin.

**Unai Unzalu Unamuno**  
Arrasate • 3,335 Kg. Martxoak 15.  
Gurasoak: Jabi eta Arantza (Arrasate). Argazkian: Unai begiak zabalik amaren besoetan.

**Maider Lazcano Muniategi Andikoetxea**  
Bergara • 3,230 Kg. Martxoak 16.  
Gurasoak: Isaak eta Itziar (Bergara). Argazkian: Maider aitaren besoetan.

**Jokin Zubizarreta**  
Aretxabaleta • 3,220 Kg. Martxoak 18.  
Gurasoak: Aitor (Arrasate) eta Orreaga (Arrasate). Argazkian: Jokin jaioberria kuman lo.

**Aimar Martin Triviño**  
Oñati • 2,850 Kg. Martxoak 19.  
Gurasoak: Juan Luis (Oñati) eta Narci (Oñati). Argazkian: Aimar Kevin anaia eta Ander lehengusuarekin.

## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo  
senitartekoak zoriondu  
nahi badituzu,  
**ARRASATE IRRATIAK**  
egunero ematen  
dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
**irratia@goiena.com**  
helbidera edo deitu  
943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIA**

**FM107.7**

ARRASATE  
IRRATIA



85 euro  
**943 25 05 02**

**Gaur irratian****Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:35

**Kirmen Uribe idazlea  
Literatura Astean**

HUHEZIK antolatutako Literatura Astearen harira, Kirmen Uribe elkarritzetatu dute. Uribek inbidiarien gainean jardungo du gaur, Eskoriaztan. Bestalde, aste bukaerako kirol kontuei gainbegirada egingo diete, Juanito Arriaranen laguntzarekin.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

**Ugarkaldeko etxebizitzen zozketa**

Ugarkaldeko babes ofizialeko etxebizitzen zozketa egin zuten egubakoitzean. 75 etxebizitza izan dira zozketatutakoak eta horren gaineko erreportajea eskainiko dute eguerdiko irratsaioan. Zozketan jasotako iritziak ere izango dira.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

**Zirkulazioaren zarata  
txikitzeko neurriak****Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

**Jose Guillermo  
Zubiari elkarritzaketa****Loiola Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**Euskal Kantu  
Txapelketa aztergai****GOITB programazioa**

Astelehena, 20

**Gabiriako rallysprint  
lasterketa****23:15**

Aste bukaeran Gabirian jokatzen den rallysprint lasterketakoa irudirik ikusgarriena eskainiko dituzte gaueko kirol saioan.

Martitzena, 21

**Debagoieneko  
albisteak****22:15**


Egunean zehar ibarrean gertatutakoak jarraitu ahal izango ditugu GOITBko albistegiei esker. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo dira aurkezleak.

Eguaztena, 22

**Marrazki bizidunak  
neska-mutikoendako****13:20 eta 20:15**

Marrazki bizidunekin gozatzeko aukera dago egunero Goiena Telebistan. *Popeye, Montana eta Card sakura* marrazki bizidunak aukeran.

Eguna, 23

**Aitor Biain  
'Didjerido' saioan****22:15**

Aitor Biain oñatiarra izango da *Didjerido* saioko protagonista. Bere ibilbidearen gaineko eta gazteen abesbatzaren gaineko pistak emango dizkigu.

Egubakoitza, 24

**Paddy Rekalde  
'Ilunpean' saioan****22:15**

Paddy Rekalde idazlea izango da aste honetako gonzidatua Oihana Elortzak aurkezturiko saioan. Angiozarren irakasleari da Rekalde.

**13:15** Emisio hasiera.  
**13:20** Marrazki bizidunak.  
**13:45** Gaurkoak.  
**13:47** Behazulo.  
**14:15** Eltze beroa.  
**14:30** M1.  
**14:35** Gezi-bideak.  
**14:45** Albiste aurrerapena.  
**15:00** Munduari bueltaka: Etiopia.  
**15:30** M1. Eguraldia eta burtsa tartea.  
**15:35** Sendabelarrak.  
**15:45** Gaurkoak.  
**15:47** Harmailatik.  
**16:15** Klip@k.  
**16:30** M1.  
**16:35** Gezi-bideak.  
**16:45** Albisteak.  
**17:00** Jazz.  
**17:30** Danbaka.  
**17:45** Gaurkoak.  
**17:47** Erreportajea: Sarako eliza eta azoka biologikoa Beran.  
**18:15** Munduari bueltaka.  
**18:45** Albisteak.  
**19:00** Klip@k.  
**19:15** Harmailatik.  
**19:45** Berriak.  
**20:15** Marrazki bizidunak.  
**20:45** Albisteak.  
**21:15** Harmailatik.  
**21:45** Berriak.  
**22:15** Harmailatik.  
**22:45** Albisteak.  
**23:15** Gabiriako rallysprint lasterketa.  
**23:45** Berriak.  
**00:15** Emisio amaiera.

**13:15** Emisio hasiera.  
**13:20** Marrazki bizidunak.  
**13:45** Gaurkoak.  
**13:47** Berbaire.  
**14:15** Musika saioa.  
**14:30** M1.  
**14:35** Gezi-bideak.  
**14:45** Albiste aurrerapena.  
**15:00** Teknopolis.  
**15:30** M1.  
**15:35** Sendabelarrak.  
**15:45** Gaurkoak.  
**15:47** Behazulo.  
**16:15** Klip@k.  
**16:30** M1.  
**16:35** Gezi-bideak.  
**16:45** Albiste aurrerapena.  
**17:00** 16 mm.  
**17:30** MKT musika.  
**17:45** Gaurkoak.  
**17:47** Elkartasun bideak.  
**18:15** Iparrorratza: Argentina.  
**18:45** Albiste aurrerapena.  
**19:00** Klip@k.  
**19:15** Erreportajea.  
**19:45** Berriak.  
**20:15** Marrazki bizidunak.  
**20:45** Albisteak.  
**21:15** Teknopolis.  
**21:45** Berriak.  
**22:15** 16 mm.  
**22:45** Albisteak.  
**23:15** Erreportajea: Sarako eliza.  
**23:45** Berriak.  
**00:15** Amaiera.

**Kamera aurrean**

**"Lana aldatu gura nuen eta horregatik ikasi dut artzain lana. Artaldearekin arituko naiz Berastegiin aurrerantzean"**

**HARITZ SUDUPE |  
ARTZAIN ESKOLAKO IKASLEA  
Berriak, 2006-03-15**



**"Tratu txarren arazoa ez da kontuan hartu orain arte; Arrasateko udal aurrekontuan aintzat hartzeko garaia da"**

**MAITE ERRASTI |  
GENERO INDARKERIAREN KONTRA PLATAF.  
Berriak, 2006-03-15**

# Miarritzeko baletaren ikuskizuna

Aurreko astean Elgetan egin zuen emanaldia Miarritzeko baletak

Telebistan ikusi ahal izango duzue egunean, martxoaren 23an, 21:15ean

**goitb**  
Goienea Telebista

**Ikustekoa!**

Martxoak 20a: 080 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, martxoak 20, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan dator. Zu tartean bazaude, zorionak!

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenean egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazoleak.  
Zure izena zerrendan badago,  
**ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko.  
(saridun bakoitzarendako bi)

- Idoia Zeziaga Agirre (Bergara)
- Claudio Isasmendi Arando (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Kepa Markaide Armendariz (Eskoriatza)
- Jabier Unzueta Etxebarria (Aramaio)

## Martxoaren 27ko sariak



- Bi gonbidapen Martxoaren 31n, Elgetako ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN izango den ARIMA BELTZA eta KEU musika taldeen kontzerturako (saridun bakoitzarendako bi).

**EIBAR-MURTZIA**  
futbol partidua  
ikusteko sei  
gonbidapen.  
(Saridun bakoitzarendako bi)





Goizean: Eguzkia tarteka  
Arratsaldean: Eguzkia tarteka

## Hamarrekoa

JOSEBA USABIAGA | AKTOREA

“Ezagunek asko ligatzen dutela topiko hutsa da, eta nirekin ez du funtzionatzen”

Oihana Elortza

**1.** *Goenkale, umeendako paislazo ikuskizuna, Erreleboa libre? Goenkale-n jai izaten den egun bat aste barruan, eta horixe aprobetxatzen dut. Joan den astean, adibidez, eskiatzeria joan nintzen egun horretan. Lastima izaten da, ordea, bakkariik joan behar izatea, baina gehienek asteburuak izaten dituzte jai, eta guk ez.*

**2.** *Baina beti ez da lana bakarrik izango asteburuetan ere, ezta? Saiatzen gara parranda egiten ere, eta baita domeka eguerdira arte lo egiten ere.*

**3.** *Eta egia da asko ligatzen duzuela ezagunak zaretenok? Nik ez, behintzat. Topikoa da hori esatea eta askotan entzun dut nik ere, baina nik neuk ez dut batere ligatzen. Nirekin ez du funtzionatzen.*

**4.** *Enpresa ikasketak egin zenituen Oñatin. Zertarako? Duela urte eta erdi inguru amaitu nituen, lehengoan gainditu nituen lau kurtoak. Tolosan antzerki eskuola bat dugu, eta Oñatin ikasita-*

koak hortxe aplikatzen ditut, antzezlanak nola eta non saldu eta antzerakoak aztertzen.

**5.** *Telebistatik kanpo ere Tximista deitzen dizute? Ez, ez. Usa naiz lagunendako, edo Joseba bestela.*

**6.** *Orain arte umeendako lanak egin dituzue Iker Galartzak eta biok. Erreleboa da helduendako lehen lana. Gizontzen hasi zarete? Zerbait ezberdina egin gura genuen; hauxe suertatu zitzagun parean, gustatu eta aurrera egitea pentsatu genuen. Oso gustura gabiltza, baina umeendako lan egitea politagoa da, agian.*

**7.** *Etxean edo kanpoan antzeztea da errazagoa? Etxean, ondo ezagutzen ditugun herriean. Presio handiagoa ere izaten dugu, agian, baina erosoa sentitzen gara eta zuku handiagoa ateratzen diogu lanari.*

**8.** *Soldadutzan ez zarte egon; bada, zero antzezten duzue soldadutzaren inguruan? Duela 15 urte idatzitako gidoia da. Gainera, aitari, osabea eta inguruoei galduet diegu eta eure-*



JOSEKO ARANTZBAL


*Realaren eta Bartzelonaren arteko partidua Antzuolako taberna batean ikusteko planak egin zituzten Joseba Usabiagak eta Iker Galartzak, Erreleboa antzeztu baino lehenago. Domekan, berriz, Errenterian errepikatu behar zuten plana, pilotako finala ikusteko. Eta Oñatira urtean birritan, behintzat, joaten dela aitorri digu: San Migel txikitana eta San Migeletan, hain zuzen.*

kin ikasi dugu papera ondo egiten, asko lagundu digute.

**9.** *Apustuak tarteko joaten zara mendira? Ez, oso mendi-zalea naizelako. Donostiako Maratoia bakarrik*

egin dut apustu bat tarteko. Hiru handiak egiteko asmoa dut aurten, gainera.

**10.** *Hika hitz egiten duzu? Goenkale-n hasi nintzenetik bai.*



## Bai, nahi dut.

Ezkontzen gaineko gehigarria,  
martxoaren 24an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

**Etxe hauen laguntzarekin:** Mendigoia hotela • Iker sukaldetako Jean Louis David ileapaindegia • Bea lentzeria • Gemes estetika zentroa • Azul de rizos ile apaindegia • Etxe-aundi jatetxea • Guztiz Eder estetika zentroa • Urkan Irudi Komunikazioa • Lasagabaster • Iparproject • Tamayo • Zubiaga bitxitegia • Gure ametsa jatetxea • Imanol bodas y eventos • Maya jantzidenda • Miren Arrieta • Hotel Mondragon • Eguzkitza landetxea • Makatzeta jatetxea • Lasa jatetxea • Sofa-leku • Corte Blanco • Kanela dekorazioa

# Goienkaria